

ADÉMA ZALDUBI POLITIKA ALDETIK

Xabier ALTZIBAR

POLITIKA KANTUAK, ERAGINA, POLITIKARIEKIN HARREMANAK

Grazian Adéma poeta (1828-1907), alias Zaldubi *in profanis*, ospetsua izan zen bere mendean. Haren kantuek –bereziki euskalduntasuna aldarrikatzen zutenek–, kantikek eta gai askotariko argitalpenek itzal handiko pertsonaia egin zuten¹. Haren apaiz lana goratua izan zen, kalonje mailara igonik (1875an ohorezkoa eta 1890ean titularra Baionako katedralean). Izakerak ere

¹ Daranatzek Zaldubiren beste hainbat alderdi aipatzen ditu, ospetzen lagundu zutenak: musikari ona, bere kantuei musika egokia jartzen zekiena; hegoaldean euskararen aitzatzat hartua; erreboteko pilota partidak ohoratzen zituena, agintariekin agertuz, etab. (Daranatz 1908:121-124; 1913:39-40; 1914:134-137). Jakina da XIX.-XX. mende bukaera-hasierako Euskal Festa eta Kongresu garrantzitsu askotan Zaldubik ohorezko kargu edo tokia izan zuela: Donibane Lohitzuneko Euskal Festetan (1892, 1894, 1897); Azpeitikoetan (1893), Hendaia eta Hondarribiko Kongresuetan (1901, 1902), Eskualzaleen Biltzarrean (1903). “Gauden gu eskualdun” kantua, Azpeitiko Festetarako egina, “hemen askori agradatu zaio-tena” izan dela diotso Azkueri (1894/04/01, *Euskera* 1957:335; ik. ere Xarritton—Ouret 2003,1:231). Atzerriko euskaldunen artean ere ezaguna zen; hura hil ondoan, hau dio atzerriarri zegoen bertsolari batek *Eskualdunan*, haren omenez argitaratu bertsoetan: “Bai Eskual-Herrietan, bai Ameriketan / Zure bertsuak dire aditzen orotan / Zuk zombat egin duzun arimen onetan / Jainkoak baizik ez du jakinen sekulan” (“Zaldubi zenari”, E 1115, 1908/08/21, XII). Zaldubi “plaza-gizona” zela azpimarratu du Zalbidek (2007:944-948).

lagundu ziokeen jende askorekin harreman onak izaten, amultsua, atsegina, jendakina eta bihotz handikoa omen baitzen².

Lege zaharren aldekoa izan zen beti, kontserbadorea edo tradizionalista, eta politikan antierrepublikanoa. Bere aldian erregimen aldaketa ugari ezagutu zuen: “Erreg’, Enperadore et’ Errepublika, / Xuxen, makhur, nahaste, zenbat itzulika!” (“Errepublika”, RIEV 1909:229, I). III. Errepublika sortzean (1871) bazituen 43 urte. Atharratzen erretore nagusi kargua izan zueneko urteetan (1872-1890) argitara zituen debozio-liburu eta kantika gehien; orduan aurkeztu zituen A. Abadiaren koplarien gudueta bi aldiz Errepublikaren kontrako kantuak (1874, 1876). Atharratzeko azken urteak ez bide ziren beti goxoak izan Zaldubirentzat; *xuriak* eta *gorriak* gerla gorrian ari eta apaizek nola edo hala xuriei laguntzen zieten (ik. 3.2.).

Zaldubiren kantu ospetsuenetariko batzuek politika dute solas, eta are alegia batzuetan politika ideiak ageri dira, alusio bidez. Bere predikuetan ere gaitzetsi zituen II. Inperioak eta bereziki Errepublikak bultzatu jokaera batzuk, adib. ohore eta kargu gosea (Altzibar 2007:1048-1050). Artikulu honetan Zaldubi poetaren politika engaiamendua zedarritu eta zehaztu nahi dugu, elkarren osagarri diren hiru alderdi aztertuz. Lehena, politika kantuak: hemen azalduko dugu zein diren harenak eta zein ez, egilea nola joan zen kantu horiek idatzaldi edo bertasio desberdinetan garatzen gertakari edo egoera berri arauka, zein ideia agertzen dituzten, zein testuingurutan kokatzen diren, zein zen egilearen edo hedabidearen interpretazioa eta zer erreakzio sorrarazi izan zuten. Politika adiera hertsian ulertuz, bazter utziko ditugu politikaz ateko kantuak eta gainerako idazlan ideologikoak, haietan agertzen diren gaiak eta ideiak (euskalduntasuna, euskal tradizioak, Euskal Herriaren historia, laborantzaren defentsa). Politika kantuen formaren azterketa berezirik ere ez dugu egingo. Bigarren alderdia: Zaldubiren kantuek zer eragin edo arrasto utzi zuten *Eskualdunan*, batez ere J. Hiriart-Urrutiren artikulu nagusietan.

² Zaldubiren hilberriek eta hura hil ondoko artikulu eta bertsoek haren eginak eta dohainak agertarazten dituzte. Daranatzek argitasunak ematen ditu hark Hazparneko kolera izurritean eginikoez, Bidarra eta Atharratzeko eliz eraikitze eta apaintze lanez; bere bihotz on eta izakeragatik nonahi lagunak egiten omen zituen (Daranatz 1908a:121-124). Baionako *Semaine* kazetako hilberriak ere azpimarratzen du jendeari emana zela, atsegina, Bidarraiko eliztarrek atxikimendua erakutsi ziotela hura herritik joanda 25 urte geroago ere; xaloe zela, haur bat bezalakoa. “C’est un prêtre plein de bonté, de zèle et de bienveillance (...)” (*Semaine de Bayonne*, 3179, 1907/12/11). Euskal Herriari zion maitasun kartsua azpimarratu zuen J. Etxeparek (1992:121); ik. ere Hiriart-Urruti, J. 1977:340.

Hirugarrena, Zaldubik zer eta nolako harremanak izan zituen politikariekin, alde batera utziz euskalzaleekin izandakoak (Duvoisin, L. L. Bonaparte, Azkue, Hendaia eta Hondarribiko euskalzaleak etab.).

Lantxo honekin, segida eman nahi diegu 2007ko omenaldikoei eta aurrekoei³. Zaldubiren bizia, harremanak eta lana hobeki ezagutzeko on litzateke haren familiakoek atxikitzen duten *Livre de Raison* eskuizkribua (Daranatz 1908:123) argitaratzea, baita haren gutunak. Eta batez ere haren idazlan osoen edizio kritiko on bat egitea⁴. Eskuizkribuen argitalpenak –H. Duhau lotu zaion lana– artikulu honetako galdera eta itzal batzuk argituko dituelakoan gaude.

Zaldubiren kantuen edizioei buruz, jakina da bere kantuak beti osatzen, lantzen eta orrazten ari izan zela. Ondorioz, kantuok zenbait idatzaldi edo edizio eskuizkribatutan mamitu zituen, egunen batez argitaratzeko asmoz. Alegia, kantu eta kantika gehienak, behin eta berriz publikatu zituen *Eskualdunan*; kantika franko RBPL eta *Euskal-Errian* (J. Bilbao 1970-1981), baita gutxi batzuk *Le Pays Basque-Eskual-herria* kazetan. Badakigu 1894-1897 inguruan behin eta betiko edizioa prestatzen ari izan zela⁵. Eta aitzina-

³ Euskaltzaindiak 2008ko abenduan Senperen, Zaldubiren heriotzaren mendeurrenaren kariatara antolatu omenaldiak biziberritu du Zaldubiren inguruko ikerketa. Haren hitzaldi eta artikuluen argitalpenek (Adéma 2007, 2008; Altzibar 2006) eta ikerketek (Duhau, Touyarou-Phagaburu, Haritschelhar, Zalbide, Urkizu, Altzibar; ik. *Euskeraz* 2007, 3) segida eman diete aurreko lanei (J. Hiriart-Urruti, J.-B. Daranatz, J. Etxepare, P. Lafitte, P. Xarriton, A. Bengoetxea).

⁴ Lehenik, hark idatziak zein diren eta zein ez zehaztea komeni da. Kantuen arloan badi-ra batzuk hari egotziak baina harenak ez direnak. Adib.: “Aita Sainduari” badakigu B. Etxeberri *Kataluxe* izengoitidunarena dela (ik. Lafitteren Artxiboa, 401, 016 Bertso-pape-rak, ik. bertso inprimatuak); Zaldubiri egotzia da (Adéma 1908:602-604; Adéma 1991: 93-95). Sarean Zaldubiren izenpena agertzen diren kantu batzuk ere ez dira harenak, adib. “Garaciko urtxoa”, Saldubi delako bertsolariarena (*Le Pays Basque-Eskual-herria* 34, 1899), edo astekari bereko “Muthil gazte eria” (148, 1901-08/03). Ordea, beste batzuk harenak izan daitezke: “Misionestak Hazparnen”, J. Hiriart-Urrutiren arabera, iturriarik aipatu gabe (1977:340-341), edo Zaldubiren bildumetan agertzen ez den “Oilo urre errulia” alegia laburra, XIX. mendeko kopiazaile baten arabera (Hiribarren?, ik. Lafitteren Artxiboa. 401-003-47).

⁵ “Nik berrogoi eta hamar urthe huntan egin kanta eta neurthitz hoberenak laster argitaratuko ditut Yainko onak (...)” (R. M. Azkueri, 1894/04/01). Ordea, 1896ko beste gutun batean diotsu: “Ene neurthitzak ez dire oraino agertu.” (R. M. Azkueri, 1896/04/22). *Eskualdunaren* arabera: “M. le chanoine Adéma prépare, si nous sommes bien informés, l’édition définitif de ses oeuvres. Ce sera un régal pour les amateurs de beau langage et de vraie poésie; on est assuré de sentir vibrer dans ces pages l’âme basque” (“Publications basques”, E 526, 1897/07/16). 1900-1901ean A. Dutey Harisperekin harremanetan zen, bere obrak argitartzeko asmoz (ik. 2. eranskina).

go ere, 1888an, azken hiru urteetan landu poema profanoen hirugarren idatzaldia kaligrafiatzen ari baitzen, menturaz argitaratuko zuelakoan (*ik. 1. eranskina*). Baina egilea hil ondoan argitara ziren, hark J.-B. Daranatz izenarekin, ustez egileak berak hautatu kantuen azken bertsoan (RIEV, 1908, II; 1909, III)⁶. 1908-1909ko bertso hori bera da A. Bengoetxeak ortografia modernora egokitua eta beste zenbait kanturekin osatua (Adéma 1991).

H. Duhauren azken edizioa bikoitza da: alde batetik, faksimila –kaligrafia ederreko eskuizkribua itxuraz Zaldubiren eskukoa da, argitaratzeko asmoz artoski prestatua–; eta, bestetik, egungo ortografiara egokitua. Zinez baliotsua: kantuen doinuez hornitua –alde hau dateke interesgarriena–, halaber Zaldubiren argitasun eta azalpen ugariz –adib. “Gauden gu eskualdun” kantuan, euskaldunen historia eta geografiari buruzkoek– bai eta paratzailearen ohar eta hiztegiak (Adéma 2008). Baina ez da Zaldubiren azken bertsoa, 1894-1897 bitartekoa baizik, aipatu kantua baino geroagokoa eta A. Abbadia hil baino lehenagokoa⁷. Geroago ere egin zion inausketa eta orraztaldi bat (adierazpide edo estilo aldetik)⁸. Bestenaz, aitortu behar da ez dagoela aldaketa funtsezkorik 1894-1897 eta 1908ko bertsoen artean. Hala bada, 1894-1897 bitarteko eskuizkribuaren edizioa ez izanik azkena, H. Duhauren hartutako irizpide nagusia (egungo euskara batura hurbiltzea) eztabaidagarria da, besteak beste neurkera ukitzen eta behartzen baitu (adib. *gan @ juan*, Adéma 2008:175, 177) eta, bestalde, edizioaren paratzaileak eginiko aldaketak ere ez dira beti zuzenak, transkripzio hutsez gainera. Beraz Zaldubiren kantu guztien edizio kritiko bat egiteko gelditzen da. Guri, artikulu honen xedeei begi-

⁶ “Suivant la promesse du défunt lui-même, notre *Revue* aura la bonne fortune de publier toutes ses oeuvres basques” (Daranatz:1908:122); halaber E 1088, 1908/02/14). Ordea, guzti-guztiak ez ziren RIEV II eta III.ean argitaratu. Zenbait idazlan 15 egun hil aurretik eman omen zizkion Zaldubik RIEVi (Adéma, RIEV 1908, II:94): “Eskual-herriko eliza-betak” hitz laxozkoa eta “Pilotariak” bertsoak. Hala ere, ezin da guztiz baztertu Daranatzek edo beste norbaitek azken eskualdia eman izana.

⁷ H. Duhauren argitaratu eskuizkribuan, “Gauden gu eskualdun” kantuan, hauxe dio Zaldubik sarreran: “hunako [kantu] hauk 1893an egin nituen Laphurtarrez” (Adéma 2008:195). Hona “Eskualdunak” kantuaren hondar ahapaldia (Abbadiaren goresmenekoa): “Antonio Abadia dugu / Gizon handi jakintsuna, /.../ Urthe guzietz saristatzen du / Hoberenik den hitz-duna / Nola zain irakusten daroku, / Gure Eskualduntasuna” (Adéma 2008:193). Baliteke 1894-1897ko eskuizkribu hau 1894ko gutunean Azkueri aipatu bertso bera izatea. “Bi urthe huntan lan handi batean ari naiz. Geografia edo luziazalde bat dut hasia lehengo denboretako eta oraiko eskuara izenak (...)” (R. M. Azkueri, 1896/04/22). 1894-1897ko eskuizkribuan (Adéma 2008:203-229) ageri den berbera ote?

⁸ “Errepublikak” kantuan behintzat, 1894-1897ko eskuizkribuko estrofa franko kendu zituen RIEVek 1909ko argitalpenean, adib. Panamari, apezak soldado joateko legeari edo Santakruzi buruzkoak. Orraztaldien erakusburu bat ik. 1.3.1.

ra, 1908-1909koa (RIEV II, III) baino lehenagoko bertsioak eta aldaera desberdinak ezagutzea interesgarria gertatu zaigu Zaldubiren politika kantuen bilakaera ezagutzeko.

1. ERREPUBLIKAREN KONTRAKO KANTUAK

“Betirisants” (1874) eta “Errepublika” (1876) dira Zaldubiren politika kantu aipagarrienak, biak koplarien gudueta aurkeztuak. Geroagokoak dira “Chenelon jaun zenaturrari (...)” (1891) eta “Tribunaletako gurutzefiken khentzeaz” (1904). Zaldubiren lehenetarikoa, ordea, “Zumalakarregi”, buruzagi karlistaren laudoriotan J.-B. Elizanbururekin batera ondua.

1.1. Zaldubiren politika kantuen kokagune historiko-politiko kontuan hartu beharrekoa da. Aipa ditzagun gertaera politiko garrantzitsu batzuk. Estatuan: 1870ko gerla eta Frantziaren erorikoa; Pariseko Komuna (1871); Errepublika *xuria* (1873-1879); Errepublika moderatua (1879-1885); eskola legeen (1880-1886) eta beste batzuen bidezko laikotze edo sekularizazio prozesua. Euskal Herrian: xurien garaipena 1885ko hauteskundeetan; gorrien errebantxa *Réveil Basque* sortuz (1886-1894), Berdoly kontseilari jeneral (1886/08/01) eta Vignancour diputatu jalgiaraziz (1887/02); xurien erreakzioa *Eskualduna* sortuz (1887-1944), L. Etxeberri diputatu atereaz Mauleko hautes-barrutian (1889, 1891); Ralliement politika (1892); errepublikanoen garaitia Ipar Euskal Herri osoan (1893); Panamako eskandalua (1892) eta Dreyfuss auzia (1894tik aitzina), antisemitismoaren hazkundearekin.

Komeni da ere “Betirisants” eta “Errepublika” bere ingurune politiko-sozialean kokatzea. 1874an Zaldubik “Betirisants” aurkeztu zuenean Errepublika xuriaren aldia zen, baina 1875ean Errepublikaren Konstituzioa onetsia izan zen eta Errepublika tinko ezarria behin eta betiko. Ipar Euskal Herrian III. Errepublika bere erroak eginez joan zen emeki-emeki. Izan ere, Errepublikari jartze horretan Euskal Herria Frantziako beste eskualdeak baino gibelatuagoa zen, orok, gorri eta xuri, aitortzen zutenek. 1881ean nagusitu ziren errepublikanoak, Baionako I. eskualdean Plantié eta Maulekoan Théodore Pradet-Ballade jalgiaraziz.

Norgehiagoka horien lekuko dira Zaldubi eta Elizanbururen kantu edo bertso politikoak, baita euskarazko propaganda-liburuskak eta orotariko kazeta-artikuluak. Adib., III. Errepublikaren sortze-urteetakoa dateke (1870-1875) Elizanbururen “Biba Frantzia”, une lazgarri hura mintzagai duena; 1878-1879 urteetakoa “Lehen eta orai”, eta bien artekoak Zaldubiren aipatu bi kantuak. 1874-1879 aldian politikazko bertsoak ez ezik artikulua ugari argitaratu

zituzten alde batekoek eta bestekoek kazetetan, frantsesez batez ere baina baita euskaraz, politikaz, bertsolarien guduez, euskal gai eta abarrez. Errepublikarrek, batez ere *Avenir des Pyrénées et des Landes*. 1876ko bozetan Baionako *Semaine* kazeta erregetiarrak ere euskaraz argitara zituen zenbait artikulu erlijioaren eta hegoaldeko karlisten alde eta iraultzaren aurka, Arnaud Abbadié monarkikoa (Antonio Abbadiaren anaia) aurkeztuz Plantié errepublikanoaren eta Labat bonapartistaren kontra.

1876 eta 1877ko bozetan ito zen erregetiarren Errepublika baina Euskal Herrian errepublikarren kontrakoak nagusitu ziren: Maulen eta Baionan Michel Renaud garaitu zuten. Hautagai honen alde eta kontra agertu ziren zenbait liburuska euskaraz: *Eskualduner* (Pau: Vignancour, 1876) eta *Nor den Michel Renaud* (Baiona: Lespès ahizpak, 1877). Komeni da ohartaraztea Zaldubiren politika kantuak ez direla espreski erregetiarren aldekoak, nahiz haien aldeko joeratxo bat soma daitekeen.

1.2. 1874an Sarako Festetan A. Abadiak antolatu koplarien guduetan, Zaldubik, “Piarres Uxalegi” ezizenpean, “Betirisants” kantua aurkeztu zuen, Errepublikaren kontrako satira. Bigarren garait-saria irabazi zuen⁹. Baina Zaldubiren bertsoak ez zituzten kantatu ez saririk eman “orduko gobernamentuaren eta framazonen beldurrez”, egilearen arabera (Adéma 2008:151).

1.2.1. Sarako Festetan eta ondotik kantatua izan zedin agertarazi zuen “Betirisants”; ezizenez, zer gerta ere, besteak beste apaiza zelako. Jakina denez, A. Abbadiaren festetan neurtizlarien sariak mailaz goragokoak ziren bertsolari eta gainerako lehiaketetakoak baino. Frantzian III. Errepublika zegoen indarrean, nahiz erregetiarrak nagusi ziren. Giroaren politizazioaz gain, egilearen izakera ere kontuan hartu behar da. Zaldubiren ausartziak gorrien erreakzioa ekarriko zuen; hala ere, handik bi urtera berriz ihardetsi Zaldubik, oraingoan ziri-bertso ugariagorekin.

Bere “Betirisants”ez argitasun ugari eta zehatzak eman zizkion egileak L. Etxeberriri, xurien buruzagi politiko eta *Eskualdunaren* jabeari, honek Zaldubiri galde eginik bere kantuak: Sarako Jokoetarako 500 ale argitaratu, eta, harrigarriki, berehala desagertu zirela; kantu horrek asko irabazten duela kantatua izanik, doinuaren bidez buruan erraz hartzekoa dela eta ulergarria; musikagile onek notak jarri dizkiotela (ez dakigu 1874rako ala geroztik; pen-

⁹ 1874ko irailaren 14an ospatzekoa zen poesia lehiaketa (*Courrier de Bayonne* 3329, 1874/09/11). Baionako *Semaine* eta *Courrier*ek ez zuten eman gertatuaren berririk. 1888an Zaldubi ez zen oso ongi oroitzen data zehatzaz, “Betirisants” 1875ean agertu zuela uste baitzuen (ik. L. Etxeberriri gutuna, 1. eranskina), halaber 1894-1897ko eskuizkribuan (Adéma 2008:151, sarrera-oharra). P. Xarrittonek ere 1875ko data ematen du (1985:51;1992:60) baina ez da zuzena. 1894-1897ko eskuizkribuan Zaldubik dio ere lehen garait-saria irabazi zutela (Adéma 2008: ibid.), oker hori ere.

tsatzekoa da Zaldubik “Betirisants” kantu zaharraren antzeko doinua jarriko ziola Saran) baina lana zaila kausitu dutela, bere haurtzaroan entzuten zuen “Betirisants” haren doinua ia ahaztua eta koplak galduta egonik tamalez; hala ere, finegia dela herri-kanta bilakatzeko; bere kantu profanoen 3. idatzaldia lantzen ari dela eta “Betirisants” duela bere kantu landuena eta maiteena (Ik. 1. eranskina)¹⁰. Handik laster L. Etxeberrik bere kazetan argitaratu zuen (E 46, 1888/04/06).

“Betirisants”ek izenburuaren ondoan lelo bat zuen 1774az geroztiko edizio batzuetan: “Lehen ezeria, orai beltzeria” (E 46, 1888/04/06), edo “Lehen miseria, orai beltzeria” (1894-1897ko eskuizk.). Hau da, “Betirisants” beldur-garria, gosetearen pertsonifikazio irrigarria, tradiziozkoa¹¹, Elizanbururekin batera 1846an ondu kantuan ageri dena (Adéma 1991:194-201), Zaldubik Errepublikaren pertsonifikazio satiriko bihurtu zuen, miseria eta orotariko hondamendiarekin identifikatuz (1870ko erorikoa, Komuna, eta erlijioaren, moralaren, ekonomiaren eta gizartearen hondamena).

1.2.2. 1874az geroztik, “Betirisants”en testua etengabe orraztuz joan zen Zaldubi, eta bere interpretazioa zehaztuz eta espreski adieraziz. Hainbat bertso desberdin argitaratu zituen. Guk 1909 arteko 6 eta 1894-1897ko eskuiz-

¹⁰ 1899an, *Art poétique basquen* berriz “Betirisants”en doinuaren garrantzia azpimarratu zuen Zaldubik, bere haurtzaroan arrakastatsua zen kantu zaharraren arrastorik aurkitu ez izana deitoratuz. Esaten du ere 1825 inguruko ezeriak iradokia dela. “Voici, avec neuf vers monorimes à chaque couplet, et en vers inégaux, un genre très étudié, imitant une chanson inspirée par une disette qui sévit sur le pays vers 1825, disette personnifiée par le poète sous le nom de Betiri Sants. Nous regrettons de ne plus pouvoir trouver nulle part le moindre fragment écrit de ce chant qui avait grande vogue dans nos jeunes années: Betiri-Santsez aspaldi dik / Ez zela deus berri handirik: / Zioten ehortzi zutela bizirik. / Lurpetik ilkirik; / -Ez duk ez irrik;- / Munduz mundu herratua ibilirik; / Oraikotik ditik Bettirik, / Indarrak hartu, guk utzirik; / Hor zia gok kargu handitan jarririk (bis). // Ce couplet ne serait pas régulier; il ne répondrait pas aux exigences de la mélodie sur laquelle il doit être chantée, si la rime n’en était unique, et si les quantités syllabiques n’étaient pas exactement ce qu’elles sont là.” (E 636, 1899/08/25; Altzibar 1998:96).

1825 ala 1846ko goseteak iradoki zien Zaldubi eta Elizanbururi 1946ko kantua? “Ene loreac” eskuizkribuan izenburuaren ondoan hau irakurtzen dugu: “Betiri Sants. Erran nahi baita Mila zortzi ehun eta berrogoi eta seiean herri hauetan zen miseria.” (Adéma 1991:195). Xarrittonen arabera ere 1946koa da (Xarritton 1985:48; Adéma 2008:32).

¹¹ Betirisants gose eta miseriaren pertsonifikazioari buruzko bertsoak baziren Zaldubi eta Elizanbururen 1946ko horiek baino askoz lehenago. Adib., 1725eko ezeria aipatzen dutenak (“Sur la misère”, Lafitte Artxiboa, 401, 002-17; 10 estrofa). XIX. mendean baziren Katxo hazpandarrarenak (Xarritton 1992:60). XX. mendean ere jarraitu zuten; ik., adib. M. Etxamendiren “Gizon beharra eta Petiri Sants” (E 1200, 1910/04/08) edo Mixel Bidarraitarraren “Betirisants” (E 1546, 1916/12/15). Gai honetaz ik. Kaltzakorta 2004: 187-231.

kribukoa ezagutzen ditugu: 1874an Sarako Festetara aurkeztua (1874 Sara), Baionan A. Lamoignon inprimatzailea baitan argitaraturiko bertso-papera (Lamoignon)¹², *Eskualdunako* 1888 eta 1893koak (E 1888, E 1893), 1894-1897ko eskuizkribukoa (1894-1897 eskuizk.) eta RIEV III.ekoa (Adéma 1909)¹³. Parentesi artean dauden izenez adieraziko ditugu bertsiak desberdin horiek; dagozkien estrofa, erromatar zenbakiz. Bertsiak desberdinen arteko aldeak aztertuta, hona ondorio batzuk:

1. 1874ko Sarakoa eta Lamoignon baitakoa bertsiak bera dateke, xehetasunak gorabehera¹⁴. Lehen bertsiak hau gainerakoekin konparatuz hauek dira aldeak:

a. 1874 Sarakoak eta Lamoignon baitakoak zortzina estrofa dituzte; geroago bertsiak, hamarna.

b. 1874ko Sarakoak eta Lamoignon baitakoak gainerako bertsiak azken estrofa da berria gaiaren aldetik: eskola laikoak. Hain zuzen, Jainko gabetasunak jendetasun eza dakarrela sarkasmoz esanez bukatzen dira: “Ez galde jendetasunik abereeri” (Adéma 1909, X). Azken estrofa hori eskola legeren (1880-1886) ondotik egin da, Zaldubik 1888an L. Etxeberriri espreski diotsonez (*1. eranskina*).

¹² Bigarren garhait-saria / untza-urhea / erraman (sic) duen cantua Sempertarrak eguina. / Betiri-Sanx”, in *1874. Neurtiztarien* (sic) *gudua. Sarako Bestan* (Baiona: A. Lamoignon). *Bertso-papera. Bonaparteren fondoak. Newberry Library (Chicago). I, II, III. A-5.* Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan ikusgai.

¹³ Hona izenburuak eta argitalpenak: “Betiri-Sants” (1874; Urkizu:1997:269-270; originalean “Betiri-Sanx?”); “Bettirisants. Lehen ezeria, orai beltzeria” (E 46, 1888/04/06); “Bettirisants” (E 320, 1893/07/14); “Bettirisants. Lehen miseria, orai beltzeria” (1894-1897ko eskuizk. In Adéma 2008); “Bettirisants” (E 606, 1899/01/27); “Betirisants” (Adéma 1909:227-229). Hurren urtean ere argitaratu zen: “Betirisants” (E 1172, 1909/09/24). Azken hau RIEV 1909ko bera da, hitz bat izan ezik: Oi! zenbat dabilan herrestan (Adéma 1909:228) © Oi! zenbat den hilik herrestan (E 1909). 1899ko *Art poétique basquen* lehen estrofa beste bertsiak bat ageri da, 1894-1897 eta 1908koen hurrekoa, izan ere haien bien artean argitaratua baita (Altzibar 1998:96).

¹⁴ Hona bien arteko alde niniñoak: Oraico mende guisan bere du ohore (1874 Sara (ap Urkizu), II) © (...) harc du ohore (Lamoign., II); VI Lurpeta ilhumbetan (1874 Sara (ap Urkizu), VI) © VI Lurp-eta ilhumbetan (Lamoign., VI); Adinik gabe zer nahi haziak (1874 Sara (ap Urkizu), VII; hutsa ote azken hitza?) © (...) cer nahi ikhasiac (Lamoign., VII). Batean eta bestean ageri dira zenbait huts: Orai cen podore! (II) © (honako hau behar du) Orai cer podore. Hauek ere hutsak izan daitezke (?) edo bederen anomaliak (bertsiak bera delako frogatzen dute, nolana ere): Heien secretua, / zin eta patuac (VI); Betiri Sanxen haur gucia, (VII). Normalagoak dira *secretuac* eta *guciac*.

c. Edukiaren aldetik badira alde xumeago batzuk: 1874ko Sarako bertsioren arabera, Errepublikak bortxa darabil batez ere; geroztikako bertsioren arabera, bortxaz gainera (eta beraz honetan ere libertatearen printzipioarekin kontraesanean: Adéma 1909, V) beste jokabide batzuk ere bai: amarrua eta lausengua (Adéma 1909, III). 1874ko Sarako bertsiotan Betirisants “Jainkorik ez dutenen enperadore” da (II); geroztikoetan, “zorri hilik piztuen enperadore” (hots, aberats berrien). 1874ko Sarakoan framazonak jainkogabeen gidari dira (“Jainkorik ez nahiz munduak / hek ditu gidari hartuak”, 1874 Sara, VI); geroztiko bertsiotan gobernamentuaz jabetuak dira framazonak, eta nahasmentuak, kalteak eta gastuak erakartzen dituzte (Adéma 1909, VII). 1874ko Sarako bertsiotan errepublikanoak edo “Betiri Santsen haur guziak / Ttikitik libro haziak”, dira “bizioz gaindiak” (VII); geroztikako bertsiotan zehatzago dibertsifikatuta ageri dira: itsu-itsuan darraizkion gaixto, xoro, asto, xanfarin, kaskarin, edale, mandril eta lapurrak, halako boz-emaileak behar omen baititu Errepublikak (Adéma 1909, IX).

d. Forma aldetik (hitzen hautua, etab.) 1874ko Sarakoa nahiko aldatua ageri da ondoko bertsiotik gero eta landuagoetan: 1888koa 1874ko Sarakotik franko desberdina da. 1888ko horretan hasten dira, hain zuzen, oinarritzko aldaketak; gainerako bertsiotik antzekoak dira, aldaera xumeak baizik ez dituzte. Azaleko aldaketa horiek guztiak izan arren, beti neurkerak egonkortasuna ematen dio kantuari: estrofa molde berezia du, 9 puntukoa, 9 eta 12 silabako bertsolerroak aldizkatzen direla (*ik. 10. oharra*).

2. Funtsean gaia, egitura eta ideia nagusiak ere bertsuak dira bertsiotietan, aipatu aldaketa eta aldaerak gorabehera: borrokan ari dira, alde batetik, Makurraren edo Gaizkiaren aldekoak, hots, Betirisants edo Errepublika, errepublikanoak eta framazonak, eta bestetik, Zuzenaren edo Ongiaren aldekoak, hots, Jainko legearen edo erlijioaren aldekoak. Zaldubik politika erlijioaren ikuspegitik begiratuta epaitzen du. Jainko legerik gabe (hau da, katiximako manuak gabe), ez dago jokabide moralik ez erlijio zuzenik: “bethi haizu dela egin daitekena” (1874 Sara, IV), “indarraren meneko dela zuzena” eta “Nor baita txarrena, / Hark dik hark hobena” (Adéma 1909, IV; antzera E 1888, E 1893, 1894-1897ko eskuizk.). “Betirisantstarren Jainkoa / da mundu huntako gozoa, / Erlixione libro eta largoa, / (...)” (1774 Sara, V; “Erlisione libro eta lazoa, / aphez gabekoa”, Adéma 1909, VI). Bertsiotietan agertzen da “bizitze gisa” batzuen gaitzespena ere, horietan Betirisants (hots, errepublikanoak) nagusi delako (Adéma 1909, VIII); baita “Errepublika” kantuan ere, “lanbide hitskoa” deituz (“Errepublika”, Adéma 1909, XVIII). Kadet Astoputz pertsonifikazioak irudikatzen dituen erriets-errietsa eta funtzionarioei buruz mintzo da koblaria, duda gabe.

Zuzena eta Makurraren arteko dikotomia, Zaldubiren ia kantu guztietan agertzen dena, izatez euskal idazle kristauen pentsamoldearen ezaugarri nagu-

sia da, XIX. mendean behintzat. Honela adierazten du Zaldubik 1882ko “Mende jende mendre”n: “Zuzen’ eta makhurra, / elgarri gudian, / Aspaldi etsai handi / zabiltzan munduan. / Jendea zuzenaren / alde zen orduan. / Indar gaitza du orai / makhurrak eskuan.” (Adéma 1991:150, VI). Dikotomia hori baliabide erretoriko bakun, borobil eta indartsu batzuen bidez indartzen du Zaldubik: “lehen eta orain” toposa, antitesia, pertsonifikazioa (Betirisants), hiperbolea edo esajerazioa adierazpideetan, oihu eta galdera erretorikoak, hitanoa etab.

1.2.3. 1888an L. Etxeberriri igorri gutun batean Betirisantsen interpreta-zioa zehazten du aldi edo egoerari egokituz, baita hedatuz (juduak barne hartuta). Diotso: “Bettirisants” framazonen deskripzioa da; Bettiri-Sants zorri hil biztua da, lurretik aterea, kosmopolita, gizateria iraultzaile eta biziotsuak sustatua, aberats puxant bilakatua, haren aitzinean gur eta makur ari direla jende ero koskak. Bettirisants Gambetta da, bai eta Judua, Drumontek deskribatu bezala...edo berdin Errepublika.

1894-1897ko eskuizkribuan osagai berri bat gehitzen du. Bettirisants erlijioaren eta euskaldunen etsai dela dio sarrera-oharrear: “Kantu hautan aiphu direnak dire: Framazon (Eskuaraz Harginbeltz), Judu eta heien khideko, gure Erlisioneari aihar diren guziak; Eskualduneri beren zuzen eta libertate zahar-rak ebatsi ondoan lege jainkozkorik gabe, manatu nahi darokutenak.” (Adéma 2008:151).

Framazon edo masoiei buruz esan behar da Zaldubi lehenetarikoa dela euskal idazleetan, lehena ez bada, framazonen aurka ihardukitzen; Intxauspe (1883) eta M. Elizanburu (Fr. Innocentius) (1890a, 1890b; 1988) baino lehena-gokoa behintzat. Baita, haiek aipatzeko, *harginbeltz* hitza erabiltzen¹⁵. Zaldubi kezkatua zegoen framazonen inguruko kontuez; L. Etxeberriri adierazten dio haiek zer diren euskaldunei hitz lauz azaltzeko asmo aspaldikoa bete nahi lukeela; bestetik, galdetzen dio Etxeberriri ea Paueko framazon logiaren baten zelatapean egon ote zitekeen. Lehena ez zuen bete, agian M. Elizanburu lan berean ari zela jakinik. Bigarrenari buruz, uste dugu Euskal Herrian berean ere bazirela masoiak, edo antolatzen ari.

¹⁵ Etimologiaz: *hargin* ‘maçon’ + *beltz*, beltza baita deabruaren kolorea, *franc* ‘librea’ epiteto esanahi positibodunaren ordain. Baina *beltz* hitzak apaizak izendatzeko ere balio zuen. Berdolyk 1893an irabazi ondoan, Maule inguruetan “Fuera beltzak!”, “Biba Errepublika!” oihukatu omen zuten zenbaitek. Zaldubik bere burua *artzain beltz* izendatzen zuen (*beltz*, konnotazio positiboduna vs *beltz*, negatiboduna). Framazoneria, *Le Robet quotidienn* arabera, da: “Bilkura esoteriko eta inizatikoa, izaera filosofikoduna eta progresista, egiaren bilatzeari eta gizakiaren eta gizartearen hobekuntzari emana” (1996).

1.2.4. Beste “Betirisants” kantu baten bi estrofa eskuz izkribatuak bildu zituen L. L. Bonapartek. Ondoan, kopiazaileak ohartarazten du Kinkouna d’Ustaritz delako batek eginikoen txatal bat dela¹⁶. Bertsoilea Betiri Santsi zuzentzen zaio, adiskiderik ez duela eta joateko esanez (I); Larresoron ere jendeak atakutzen dituela (II). Ez dakigu nori edo zeri buruz ari den, ez noizkoa den; politikari gorriren bati buruz ari dela dirudi.

Katalogatzaileen arabera Kinkuna hori Zaldubi izan daiteke, eta, aipatu zatia, haren Betirisantsen atalen bat (Gonzalez Etxegarai-Arana Martija 1989:114. zenbakia). Argitaratzaile taldearen arabera ere Kinkouna d’Ustaritz hori Grazian Adémaren izengoitia da (Pagola et al. 1999:239). Ordea, batzuek eta besteek diotenak ez du egia itxurarik: ez dira Zaldubiren eskukoak, hizkuntza aldetik ez dirudite harenak eta estrofa mota ere (9/7) ez dateke Zaldubik erabilia, ez haren neurkera tratatua aipatua. Orain arteko Zaldubiren edizioetan ez dira bertsook ageri. Kinkuna delako hori Dominique Desquerre-ren izengoitia da, eta hemen aipu ditugun bi estrofa horiek, haren bertso-sail batekoak. Ik. Haritschelhar 1988. Dena dela, Zaldubiren Betirisants pertsonifikazio politikoak bere arrastoa utzi zuelako seinale izan daiteke.

1.2.5. 1874ko Sarako Koplarien Guduan lehen saria hegoaldeko “Biscaitarra” ezizenez sinatzen zuenak ukan zuen “Jaungoicua ta errija” olerkiarekin (Urkizu 1997:268-269). Kantua karlismoaren aldekoa eta liberalen kontrakoa da; hasierako eta amaierako bertsoak armak hartzera deitzen du. Orduan Espainian I. Errepublika zegoen (1873 otsaila-1874 abendua) eta gerrate karlista puri-purian (1872-1876). Hona lehen eta azken bertsoa, eta azken aurrekoa, A. Lamaignère baitan argitaratu bertso-paperetik hartuta (“Jaungoicua ta errija”):

“Ea bada, mutillac, jagui gogorturic, / Fusillac baionetac artu berbertaric, / Jaungoicua ta Marija doguz gure aldetic, / Europa kontra izanic ez dogu beldurric.” (I, XIX; bertso-paperak *jaqui* dio, oker).

¹⁶ Hona izenburu gabeko bertso hauek: “Betiri Sanx, ez diat uste baduyan aichkiderik, / Ez baitu nihondik aditzen hire laudoriorik. / Etchetan beltzuriak dituk, ez duk begitharterik. / Habil bethiko! ez-tukegu ez damu, ez kalterik. (I). “Betiri Sanx, aditu-tiat Larresoron berriak, / Han ere direla ezagun hire fanfarrerriak, / Hainitz gogorki dituyala atakutzen jendiak; / Semenariao ez balitz jo hintzazke erdiak.”. Ondoan esaten da: *Extrait de la chanson de Betiri Sanx, par Kinkouna d’Ustaritz.* (Pagola et al. 1999:239). Jaterrizkoa: Fondo errebatuean gela. K. Mitxelena Kulturunean, Donostian (Sign.: 091 Bon doc-114; 2 C 9 mikro-filma).

“Españaco coroya buruan jantzita / Don Carlos izango da Españolen aita. / Esan bada gogotic bildurrari ichita: / BIZI BEDI DON CARLOS TA ANDRE MARGARITA” (XVIII).

Egileari, MAE delakoari, ez zioten kantatzen utzi, ez argitaratzen¹⁷. Baina bertso-paper gisa argitaratu zuten (Baiona: A. Lamaignère, data gabe). Gainera, koplarien gudura aurkeztu aurretik ere Espainian argitaratua izan zen inprimatzailearen izenik gabe¹⁸. Bestenaz, badirudi auzi horretan ez zeto-zela bat Duvoisin eta Intxauspe (Urkizu 1997:29). A. Abbadia karlisten aldekoa zen, bai eta epaimahaikoak ere, dudarik gabe, halako kantu bat saritzeko eta argitaratzeko. Aita Aranari idatzi zion esanez oso pozik zegoela saria hegoaldera joan zelako lehen aldiz, eta alde onarentzat emana izan zelako (1874-IX-29, BnF 21746).

1874an Sarako garaileek nolako kantuak aurkeztu zituzten ikusita, Martin Guilbeau poeta eta errepublikano buruzagiak artikulua bat argitaratu zuen *Avenir de Bayonne* kazetan, epaimahaiaren erabakiaren, epaimahaiaren beraren eta Lore Jokoen kontra (Guilbeau 1874)¹⁹. Bi urte aitzinago (1872) hasia zen Guilbeau protesta egiten; ondorengo urteetan xurien eta gorrien arteko haustura sakondu zen eta 1893an, garaitiaren ondotik errepublikarrek “Association basque des Jeux Floraux”, Lapurdin “Association Labourdine” deitua sortu zuten, haren idazkari eta arima zen Guilbeuren inguruko jende-ek osatua. Erakunde lapurtarrak Lore Jokoa antolatuta zituen zenbait urtez: 1893an Uztaritzen, 1894an Hazparnen, 1896an Kanbon.

¹⁷ MAE hori Felipe Larragan Zabala da. Aita Jose Ignacio Arana jesuitak bidali zion Intxausperi kanta irabazlea. A. Abadiak galdetu zion J.I. Aranari nor zen egilea, esanez harentzat atxikitzen zuela hark lehiaketan irabazitako makila (1874/09/07). Garaitia eraman zuten kanta inprimatuaren ale bat ere igorri zion (1874/08/08). J.I. Aranak galdetzen du Durango aldean eta jakiten du irabazleak jasoa zuela makila (1874/12/16). Gutunak ik. BnF 21746.2-287tik 290ra. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.

Felipe Larragan 1837/08/23an jaio zen Durangon. Felipe baino zerbait ezagunagoa da haren anaia, Domingo Eustoquio Larragan Zabala, 1834/11/02an jaioa, Durangoko Santa Maria elizako parrokoa eta arzipretea. Neurtizlaria izan zen, ezizenez idatzi ohi zuena. Haren gabon-kantak bildu zituen Uriartek (*Poesía bascongada. Dialecto vizcaíno*. In Kortazar, J.—Billelabeitia, M., 1987: 151-154). Xehetasun gehiagotarako, ik. Arginzoniz, A. M., *Euskal Erria*, 1890, XXIII, 176-179. Eskerrak eman behar dizkiogu Josune Olabarrieta Euskaltzaindiko bibliotekariari, zerezalada batzuenengatik.

¹⁸ Espainian argitaratuak 22 estrofa zituela diotso A. Abadiak J.I. Aranari, lehena eta azkena zein ziren esanez (1874/09/29. BnF 21746. Euskaltzaindian kontsultagai). Argitalpen horretan ez da agertzen lehen eta azken bertsoa, armetara deitzen duena. Beraz hasiera-bukaera bortitz hori gehitu zion egileak Sarako Festetan aurkezterakoan.

¹⁹ G***, “Fête de Sare. Concours de Poésie basque”, *L’Avenir de Bayonne*, 1874-IX-19.

1874ko artikuluan Guilbeauk dio: Abbadiaren koplarien guduak farregarri gelditu eta jendeak bazter utzi dituela. Abbadiaren xedea euskal literatura jasotzea zela eta hasierako urteetan poesia oso onak aurkezten zirela, epaimahaiak urtero ageriki sarituen kontu ematen zuela, baina geroztik ilunpetako epaimahai anonimo bat dagoela, interpelazioei erantzunik ere ematen ez diena, alderdikari izateaz salatua denez gero anonimotasunean erosoago dagoena; horrek gibelatu eta hoztu dituela poetak. Urte hartan (1874) akademia *basko-foboak* “Biskaitar” delako baten bizkaitar kantu bat saritzeak denen haserrea piztu duela; Sarako auzapeza zuzen jokatu dela saridunari ohore publikoak eta kantatzea ukatuz; poesia saritua hala-holako prosa errimaduna dela, gaiez ez ezik azal, mami eta balio literarioz deus balio ez duena.

Guibeauk dio ere: Zertako nahasi karlismoa herriko bestekin? Nahiago dugu hemengo bakea eta lasaitasuna armen hotsa eta anai arteko odol-isurtzea baino (Guilbeauk III. Errepublikaren kanpo-politika defenditzen zuen: bakea eta akordioa Espainiako legeekin, arrazoi gehiagor han liberalak nagusi izanik). Poesia saritua karlisten aldeko gerra-oihu basati bat da, eta hori *Jainkotasunari* eta *aberriari* irain egitea da²⁰. Epaimahai lapurtarrak ulertu ote du gerra-kantu hori? Guk beste era batera ulertzen baititugu hor ageri diren hitz anitz; “Bizkaitarra” ez dabil zuzen liberal espainolez gaizki esaka arituz: liberala gaiztoa dela, malmutza, madarikatua, infernutarra, faltsua, eta, Karlos, aldiz, *giza gaizua*. Berbeta modu hori ez da poesiarena, kabaretekoaren itxura du. Pasarte batzuk ere ahogozo eskasekoak dira: Ama Birjinari *Dontzella* deitzeak (Guilbeauren arabera, horrek beste esanahi bat du, arruntkeriazkoa) errespetuari huts egiten dio (testu sarituak dio: “Ukatu da Jesusen Jaungoicotasuna, / Ta bardin Marijaren Dontzellatasuna”, XI). Guilbeauk dio kantu sarituak ez duela inolako baliorik, ilunpean epaitzen duen epaimahaia-arentzat gogoko izatea besterik. Aspalditik hona sarituak diren poesiei eta saritu ez dituztenei ohartuz gero, esan daitekeela epaimahaian epaile batek agintzen duela.

²⁰ Donibandar politikariaren ikuspegitik, gainera, muga aldeko herrietan karlistak sartzea istilu-bide eta arriskugarri zen. Baina hark berak ere, gazteago zela, Inperioaren urteetan, Zumalakarregiren omenez bertsoak ondu zituen (“Bihotz karlista baten auhenak”, 1858n Urruñan aurkeztua, Urkizu 1997:127). Baita karlistak eta gudua goraiatu. Hona zer zioen Guilbeauk Zumalakarregiri buruz, agian Xahoren *Voyage en Navarre* liburuaren eraginez: “Hire anaiek haute aguro ahantzi, / Hire galtzeak ditik arras iziarazi, / Ni lapurtarra, bihotzez hirea, / Ez haut ez ahantziren, menditar umea.”. III. “Biba Karlos erranez zohazte gudurat, / Espainol fierraren buruan jotzerat, / Galde zatzue zuen frankeziak (‘foruak’) / Arma xuritan pasa bertzenaz guziak”, VI. “Ager hadi gerlara hanitz famatua, / Gorthetan ohorezki bethi aiphatua, / Begira ezak hire omen handia, / Sutan emanez, sutan espainol hazia.”. X. Beraz Guilbeauren kantu honek ere gerlara deitzen du (ez liberalen baina espainolen kontra) eta Bizkaitarrarena bezain basatia da. Argi dago Guilbeau ere ideiez aldatu zela.

Bigarren sarituari buruz, “Betiri-Sanz” alegia, sasoz kanpo dagoela dio Guilbeauk; gai hori egile senperrak baino hobeki eta espiritualkiago landu duela beste batek; gaia ezagunegia dela, eta gainera, huts bat egin duela “framazon” hitza *hargin beltz* itzultzean, egileak beste zerbait esan nahiko zukeela, beraz hainbat gaixto harentzat!, berak (Guilbeauk) itzuli besterik ez duela egiten. Azkenik, M. L. delako lagun bati esker ezagutzen duela azken sariketa horretara aurkeztutako poesia bat, aurki publikatuko duena, eta poesia hura hobeia zela saritzeko, balio literarioen bat baduelako.

1.3. 1876an Zaldubik, “Piarres Uxaleguy” ezizenpean, “Biba Republika” aurkeztu zuen Sarako Euskal Festan, neurtizlarien gudu. Hamar bat lehiakidek parte hartu eta epaileen irudiko harenak baizik ez merezi garait-saria, baina saririk gabe gelditu (*Courrier de Bayonne*, 1876/09/13). Duvoisinin arabera, lehiaketan politika bazterrean utzi nahi zuen Abbadiak (Urkizu 1997:30). Zaldubik berak dioenez, “orduko gobernamentuaren lotsaz ez ziren ez inprimatuak ez kantatuak izan eta ez zioten garhait-saririk ere eman. Geroztik, gerthakari eta berriaro arauka emandatuak (sic) izan dira asko ahopaldi berriz.” (1894-1897 eskuizk., in Adéma 2008:157).

1.3.1. Beraz idatzaldi zenbait, eta ia beste hainbat argitaraldi izan zituzten, hauexek: “Biba Republika” 1876an Saran aurkeztua (Urkizu 1997:276-277); “Errépublica!!!”, inprimategiaren lekua eta data gabe bertso-paper moduan argitaratua, agian A. Lamaignère edo Lasserre baitan; “Errepublikari xistu”, *Eskualdunan* argitaratua (E 23, 1887/10/28); “Errepublika”, *Eskualdunan* 1888an (E 34, 1888/01/13), Gernikhaitz sinatua; “Frantziako hirugarren aldiko Errepublika”, 1894-1897ko eskuizkribukoa (Adéma 2008:157-180); “Errepublika”, RIEVen 1909an (Adéma 1909: 229-233). Honela izendatuko ditugu, hurrenez hurren: 1876, Errépublica!!!, E 1887, E 1888, 1894-1897 eskuizk., 1909.

Hauek dira batzuen eta besteen ezaugarriak eta haien arteko alde nagusiak:

a. Lehen idatzaldiak, 1876ko Sarakoak, 19 estrofa ditu, errepika batekin (“Dugun errepika / Bib’Errepublika” (bis), eta bere doinuarekin (“Ai, ai, ai, mutila, xapela gorria”, Urkizu 1997:443)²¹.

²¹ Hona edukia handi-handika: Errepublikan denek nagusi edo errege nahi, I, III; izatez “Pariseko xanfarinak baititugu nagusi”, V. Karguak bozen bidez hautatzea gaitzesten da: “Podore ta karguak, lehen oi zer gauzak! / Orain darrak ditik ziri baten bozak!”, VII. Zernahi haizu indartsuak: “ebasle indartsua ez dela ohoina!”, X. Errepublikak ez du hobetu jende xehearen egoera, VIII. Libertaterik ez, edo bertzek bai, nik ez, XI. Errepublikarekin zergak beti berdin, XIII. Orain oro soldadu, XIV. Orain gu legegile, XV. Berdintasunak dakar txikiak handiari, sehiak nagusiar manatzea, XVI-XVII. Egunen batez jende astoak izanen frantsesen nagusi, XIX.

b. Bigarren (?) idatzaldia (Errépublica!!!) data eta inprimategiaren tokia gabe argitaraturiko bertso-papera da. Honek ere 19 estrofa ditu; doinurik ez da aipatzen eta errepika jakina du (Ai, ai, ai mutillac, + azken neurritza). Estrofa hegoaldean ohi bezala emanak ditu, lauko txikian. Idatzaldi honek zenbait gauza berri dakartza, lehengoarekin alderatuz: “Liberté, Iguaité, / eta Fraternité / Ai hirur gezur hoiec / Eguiac balizte!” aipu edo esaera²²; Jainko gabeak legegile, XV; autoritatea Jainkoagandik dator, XVI; euskaldunek arrazoi gehiago dute antierrepublikanoak izateko (XIII-XIX)²³. Hain garrantzitsuak ez diren beste zer batzuk ere badakartza²⁴. Bigarren bertso hau ondo-koaren oso antzekoa da; desberdintasun ñimiño batzuk daude bien artean²⁵.

c. Hirugarren (?) idatzaldia ere (E 1887) 19 estrofakoa eta errepikan kantatzekoa da *Ai, ai, ai, chapelá* [xapela] *gorria* airearekin (txapel gorria karlistena zen). *Eskualduna* kazeta sortu berriak atsegin handiz argitaratzen du lehen orrialde eta zerrendan, “Errepublikari xistu!” izenburu berria eman eta kantua zabaltzeko deia eginez; izan ere, Zaldubiren ziri eta pikoak kazetaren estilo makilakariari egokitzen zitzaizkien²⁶.

²² Kantuak baditu beste aldaera batzuk: “*Liberté, égalité eta fraternité* / hirur gezur horiek egiak balire” (E 1887), edo “(...) Hirur gezur horiek egiak balité” (E 1888). Aipu edo zitazio hau oso erabilia da. Zaldubi baino lehenagokoa eta beraz hark jendearen ahotik-edo hartua ote da, ala hark asmatua eta haren ondotik hedatua? Hala balitz, herriak Zaldubiren aipua bere egin duke, adierazi nahiz Errepublikak ez dituela hiru balio horiek osorik ekarri.

²³ “Escualduneri eiki / Ez zaicuc itsusi / Franchiman chanfarin hoic [et anfarin dio testuak] / Baitigu nagusi / Ai, ai, ai mutillac, / Baititugu nausi”, XIII; “Eta gu, Escualdunac, / Nor bai eta nor ez, / Manatuak garela / Holaco gizonex / Ai, ai, ai, mutillac / Holaco gizonex!”, XVII; “Escualduna Franchian cerbeit cen oraino / Franchia handia eta / Gora zagoeno / Ai, ai, ai mutillac, / Gora zagoeno”, XVIII. “Frances egotecotzat / Escualdunac hau du: / Ez laitekela behar / Sobera aphaldu. / Ai, ai, ai, mutillac, / Sobera aphaldu”, XIX.

²⁴ Hona: “Buruzagitzat lehen / handi behar zuan, / Orai ttiki-ta tcharrac / nausi tuk munduan / Ai, ai, ai, ...”, VI. Sehiak nausiari manatu, nahiz asto izan (1876 Sara, XVII-XIX) © Martin astaputz, Errepublikako presidente izateko egokia (VII-IX). “Errepublikanoak oi! cein [cen dio testuac] kargutiar! / Hoien politica da: / “Hi khen eta ni jar” / Ai, ai, ai, ..., X. “Bazter guciac dire / Bethe aintzindariz”, XI.

²⁵ Hona batzuk: nagusi tuc munduan (Errépublica!!!, VI) © nausi tuc multzuan (E 1887, VI); © Martin astaputz (Errépublica!!!, VII) © Kadet Astaputz (E 1887, VII); Franchiman chanfarin hoic, (Errépublica!!!, XIII) © Apho chanfarin hoic (E 1887, XIII).

²⁶ “Hainitz atseginekin agerrarazten ditugu aspaldi bilhatzen eta eskuetaratu bildu nahi ginituen koplá batzuek, zentzuz, izpirituz eta egiaz betheak. Errepublikaren kontra eginak dire eta ezin gehiago polliki itzuliak. Frantziaren deshoragarri eta hondagarri den gobernamendu tristeá ederki aphaindua, ederki burlatua, ederki azotatua, erraten ohi den bezala, ederki ziztuka ibilia da bertso hain ongi joak diren horietan. Eskualdunec lorietan irakurtuko dituzte, lorietan gogoz ikhasiko, lorietan eta errepikan kantatuko. Ederki egin lezake-te baldin heda ere balizate. Aireá ezagutuenetarik da.” (“Errepublikari xistu”, E 23, 1887/10/28).

d. Laugarren bertsioa (E 1888), hirugarrenetik (E 1887) gutxira atera zuen *Eskualdunak*, hau ere lehen orrialde eta zerrendan. Bertsio berria da, berregina eta gehitua, kazetak espreski dioenez²⁷. 32 estrofa ditu, errepikan kantatzekoak, aire ezagunarekin: “Ai, ai, ai! mutilla, chapela gorria / *Ai, ai, ai mutilla, zembat itzulika!*”. Gauza berriak dakartza, baita 1876ko batzuk berriz hartzen. Xedeak, espreski adierazten ditu kazetak: “aldi hartako itsuskeriak gaitzetsi, euskaldunen independentzia espiritu zaharra goretsi”. Egitura oso markatua du²⁸. Gauza berrien artean aipagarriak dira: errepublikanoak nolakoak diren adierazten duten pertsonifikazio moralak (Alferromes, Koxkarin, Krakesku, Triparno, IX); funtzionarioen hazkundera (“Oro eskola eta hiriko enplegu / laboraririk gero nihor ez dukegu”, XV; Errepublikak ekonomia hondatu duela (XVI-XVII: “Ez gaituk nihoiz izan hoin tinko estekan / ez eta biphilduak hoin murrizt errekan”, XVII); politikan, judu eta harginbeltzen tirania (“Judu ‘ta Harginbeltzek daukate Frantzia / Batzuek zaphan eta bertze iretsia”, XX); eskola legeen ondorioak (eskola Jainko gabeek haurrak aberetu, legerik ez nausirik errespeta, arrotzak gure umeen nagusi, XXV-XXVII); laster, oro Gobernuarenak (XXVIII); foru galdunen eta euskaldunen lehenagoko libertatearen aipamena: “Non dire Euskaldunen lehengo fueroak? / Arbasoen parrean, gu zer gathiboak!”, XXX-XXXI; euskara ere galduz doala arrotzen kulpaz, XXXII.

e. 1894-1897ko eskuizkribuko bertsioa oso luzea da, luzeena: 62 estrofa, aurrekoak halako bi gehiago. Garaiko gertaera jakinak aipatzen ditu: apaizak soldado joateko legea (1889), XLVII-XLVIII; Panamako ohointza (1892), XXX-XXXVII; Dreyfuss auzia (1894tik aitzina) (XXXIV, XXXV); Santa Kruz apaiz gerrillaria²⁹. Aurreko idatzaldietako ideia batzuk aurreko bertsioetan baino xeheago garatuak eta zorrotzago adieraziak daude³⁰.

²⁷ “Voici une nouvelle édition, revue et augmentée, d’un chant que nous avons déjà donné à nos lecteurs. Rarement poète basque a trouvé des accents aussi inspi[rés?], soit pour stigmatiser les turpitudes et les basses[ses?] présentes, soit pour célébrer le vieil esprit d’indépendance basque: “Errepublika” (sarrera-oharra, E 34, 1888/01/13).

²⁸ Sarreran 3 bertsotan, hastapena: “Gobernamenduetan / zoin da zuzenena? / Etorkiz legez eta obraz hala dena”, II. Ondotik erantzuna, lehenik *Ethorkiz, izatez, zer den Errepublika* azpiizenburupean, 15 bertsotan, eta gero *Legez, fedegabez, zer Errepublika* izenburupean, 14 bertsotan.

²⁹ “Legeak ezartzekotz / apezak armetan, / Santakruz bat zertako / ez onar hoietan?”, XLVIII.

³⁰ Adib.: Zergek kaltetuena, laboraria, XV; Errepublikak jende xehea larrutu, XXVII. “Sobera nagusi, lege / zerga eta dretxo:”, XXVIII. “Errepublika dela / gobernu zuhurra... / Guzien ontasuna / oi! zer gezurra!”, XXXVIII; “Ez Jainko, ez arima, ez kontzientzia, / Horra gure legeen zimendu guzia”, XLI; alimale bilakatu nahi gaituzte, XLIII; foruak kendu dizkigute hitza janean, LV-LVII; indarrak eta bortxak lege zahar guztiak kendu, baina horien bidez ezin bildu gure bihotzak, LVIII-LIX.

f. 1909ko bertsoiak, ustez azken idatzaldiak, 35 estrofa ditu eta RIEVEN argitalpenean behintzat (Adéma 1909) doinurik ez da ageri. Funtsean, 1894-1897ko testu bera da, baina garaiko gertaera aipatuei buruzko bertsoak kenduta, estrofen ordenaren aldetik zerbait aldatuta, eta euskara eta estilo aldetik orraztuta³¹. 1894-1897koa luzeegia zelako, agian, eta gertaeren aipamenetan aspaldikatua, eman bide zion Zaldubik berak edo beste norbaitek geroago beste eskualdi eta orraztaldi bat.

Idatzaldi hauek guztiak alderatuta, hona ondorio batzuk:

1. “Errepublika” kantua etengabe landuz eta aldatuz joan zen Zaldubi idatzaldiz idatzaldi, garaiko gertaerek eraginda bere pentsamendua garatu ahala. Aldaketa handiak ageri dira Errépublica!!! bertso paperean eta 1894-1897ko eskuizkribuan; azken bertso honen galbahetzea da 1909koa. Lehen bertsiotik (1876) azkenera (1909) alde handia dago. Alde batetik, estrofa gehiago (1874koan 19, 1909koan 35). Bestetik, lehen bertsoan (1876) ez dago errepublikanoak erlijioaren ez euskalduntasunaren kontrakoak direlako konturik (vs “Erlisioneari dire aiherririk” 1909, XXV). Ez dago ere Errepublikan framazon eta juduak nagusi direlakorik, ezta beste errepublikano jende-moten pertsonifikaziorik (E 1888an agertzen dira Alferromes eta bere lagunak, eta bereziki Kadet Astoputz, azken hau arnegatu, apaiz-jale, denak ikaran daduzkana; 1894-1897 eta 1909an, ordea, “Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu, / Guzien buruzagi horiek ditugu” (1894-1897, XXV; 1909, XX). Ez da ere ageri jende xehea inoiz baino estekanago, zanpatuago, diruz larrutuago dagoela (geroagoko bertsoietan bezala, adib. 1909, XIII). Ezta agintea eta legeak Jainkoagandik datozela (vs geroago bertsoietan eta 1909koan “Jainkorikan ez balitz, ez duk ez gizonik / Gizonari zuzenez deus mana lironik” 1909, XXIII; “Jainko legerik gabe / lege’egile berak...”, “Ohoiak ere berdin, /.../ Lege egile dituk, / (...).”, 1909, XXI, XXII). Ezta Gobernu gauza guztiez jabetuko dela (vs laster “Nihork bererik deus ez, Gobernuak oro”, 1909, XXIX). Ezta euskaldunen foruen aipamenik (vs 1909, XXX- XXXIV), ez euskararen gale-rarenik (vs geroagoko bertsoietan eta 1909koan, adib. arrotzek galdu euskara, 1909, XXXV). Ondorioz, askoz garatuagoa, osatuagoa da azken bertsoia lehen baino, nahiz jatorrizko ideia nagusi berberak izan.

³¹ Adib.: badagozka, 1894-1897, XXIII © badaduzka, 1909, XIX; Nihork deus bererik ez /.../ Horra zer lege duten / gero eman gogo, 1894-1897, LII © Nihork bererik deus ez /.../ Horra zer lege laster / duten eman gogo, 1909, XXIX. 1909koak kentzen du 1894-1897ko azken bertsoa ere: “Gure gogo lehena, / oi libertatea; / Guk ezin egina duk / hire ahanztea!”, LXII.

2. Edukiari dagozkion aldaketak Errepublika ezkertera lerratu ahala eginak baitira, halaber egitura, tonu, argumentu, baliabide erretoriko eta hizkuntza adierazpideei dagozkienak. Aldera ditzagun lehen eta azken bertsoak, azken hau garapen eta bilakaera luze baten fruitua. Lehen bertsoan (1876) egileak “lehen eta orain” toposa eta antitesia ezartzen ditu egitura nagusitzat ia estrofa guztietan; azkenekoan (1909), ez hain mekanikoki. 1876an Errepublikaren satira egiten du ironiaz, trufaz eta sarkasmoaz baliatuz; 1909koan, ordea, tonu zorrotzagoa, serioagoa, ezkorragoa darabil. Argumentuak eta erretorika baliabideak ere ugariagoak dira 1909koan: oihu-eta galdera-erretorikoak, akumulazioa, etsaiak barregarri ipintzea –besteak beste, pertsonifikazioaren bidez–, *licentia* edo garbiki mintzatzea, etab. Adierazpideak ere landuagoak azken bertsoan, labur eta trinkoagoak (sententzia estilokoak), indartsuagoak, bortitzaagoak, borobilagoak, baita esajera-tuagoak: eskasena errepublikano, eskasena nagusi: “Alferromes, Koxkarin, Krakesku, Triparno, / Hauk beren jitez dire Errepublikano”, 1909, XV; “Guziak kargu gose, eta nausi nahi”, VIII, etab.

3. Zaldubi Frantziako iraultzak ekarritako aldaketen aurkakoa zen. Karguak boz bidez hautatzerik ez zuen onesten: “Karguak ziren lehen goratik jin gauzak; Ematen ditik orai ziri baten bozak.”, “Orain txiki’ta txarrak nausi tuk multzuan”, 1909, IX). Esan dugunez, Ongiaren eta Gaizkiaren arteko dikotomia eta beraz Errepublikaren gaizkiak besterik ez du ikusten: bortxazko soldadugoaz eta eskolaz ere kexu da (“Oro soldado eta jende eskolatu”, 1909, XII), gaizkileak gero eta gehiago etab.). Haren arabera, Jainkorik ez bada, ez da gizatasunik ez legerik.

M. Goihenetxek dioenez, Zaldubik Errepublikaren kontra ez ezik errepublikano guztien aurka egin zuen (1987:138). Aldi hartan “Botere politikoa- ren alorrean, jaunttoen agintearen hertsadurapean zegoen jende bat jazartzen hasia zen. Borroka honetan, burgesia eta aristokrazia lurjabearen mezulari jarri zen Zaldubi” (ibid., 139). Hala ere, Zaldubiren pentsamolde kontserbadore atzerakoa eta are demagogia alde bat utzita, haren gaitzespenetan badira agian alde batzuk egun ere askorentzat onargarriak: jende anitzen kargu gose eta nagusi nahia, zentralismo jakobinoa eta autonomiarik eza. Ez zen arrazoirik gabea hau zioelarik: “Lehen aitoren seme eta orai burjes! / Bainan jende xehea bethi berdin nekhez.” (1876, XIII).

1.3.2. Zaldubiren “Betirisants” eta “Errepublikari” arrapostu eman zien J. B. Elizanburuk, Piarres Adame sinadurapean, “Lehen eta orai” kantuarekin. Donostiako Euskal Festetan saritua izan zen 1879an (*Euskal-Izkribatzalleen indar neurtzea*: 1879); Orpustan 1994: 295-297). Elizanburuk 1789ko Iraultzaren ongiak goraiatzat ditu: gizakia esklabutzatik askatu zuela, arbasoek –bereziki laborariek– libertatea ta berdintasuna erdietsi zutela. Azken bi bertsoetan anaiatasuna zer den adierazten du: “Eta gu goratzeko bertzen

apaltzea (2) / Gure anaiari duk laido egitea! / Elgar aditzea, / Elgar maitatzea, / Eta laguntzea: / Hori duk egiazko Jainko-legea!!!”, X³². Azken adierazpide honetan eta bestetan, izenburutik hasita, Zaldubiren “Betirisants” eta “Errepublika”ko ideia eta adierazpideei alusio garbia egiten die Elizanburuk³³. Adiskide ohiek elkarri eginiko keinu gisa uler daitezke, bada, hiru kantuok (Xarritton 1992:60). “Lehen eta orai”ren eragina nabarmena da beste euskal bertso errepublikano batzuetan ere (Otxalde etab.).

1.4. “Betirisants” eta “Errepublika”ren ondoren Zaldubik ez zuen politika kantu berririk ondu, bai haien idatzaldi berriak argitaratu. Baina ez zien erabat uko egin, azken urteetan zenbait ondu baitzituen gertaldi jakin batzuen karietara:

1.4.1. “Chenelon jaun zenaturrari eta haren konpainiari bazkal ondoko usaia zaharreko koplak. Sei pontutako erdi laxotan G. Zaldubik pharatuak” (Adéma 1991:208-210). 1891eko urriaren 13an Euskal Herriko buruzagi xuriek bilkura bat egin zuten Hazparnen, Chesnelong (1820-1899) Biarnoko politikari, buruzagi erregetiar eta hizlari ospetsua ekarrita, asmo jakinarekin: erlijio katolikoa ukitzen zuten legeen aurka eta erlijio katolikoaren alde batu, eta bozetan etsaiei ihardoki³⁴. Ehunka jende bildu ziren, emakume ugari eta batez ere apaiz ugari³⁵. Chesnelongek “La France Chrétienne” goiburuaren

³² 1879ko testuak dio “Eta gu gozatzeko (...)”, Baionako Erakustokiko eskuizkribuak beste aldaera bat ere badakar: “Eta bertzez gorago nahi izatea”, ap. Orpustan 1994:297.

³³ Izenburuko hitzetan ere ihardetsi nahi izan zien Elizanburuk lege zaharrekoiei, hain nabarmena da topos beraren erabilera desberdina (hark oraina goraiatuz, Zaldubik lehena). Hainbat hitzen erabilera desberdinean ere soma daiteke Zaldubirenei eginiko alusioa: *abere* edo *azienda*, *abila*, *errege*, *herresta*, *esklabo*, *miseria* etab. Hona Elizanbururen zenbait pasarte (Donostia, 1879): “Sortzetik hiltzeraino, laboraria, /.../ Azienden herrunkan hintzen yarria!”, IV. “Abilek ezarria urhezko tronuan / Bazuan bat errege guzien buruan;”, V. “Zinez zorigaitzezko dembora hetan / Nolako miseria zen bazterretan!”, VII. “Ethorri zuan bada noizbait orena / Gizona herrestatik alchatu zena, / Eta porroskatu rik gathe zahartena, / Bere gizon dretchoak hartu zituena!”, VIII.

³⁴ Bazkaria Hazparneko Barrandegian, P. Broussainen arreba eta Guichenné Baionako abokatu eta diputatu beharraren emaztearen etxean izan omen zen (Adéma 1991:208, A. Bengoetxearen oharra). Labat diputatuak aurkeztu zuen Chesnelong eta L. Etxeberri diputatuaren ezin etorria adierazi zion, gaixorik omen zelako. Chesnelong ezaguna zen Frantzia osoan eta Ipar Euskal Herrian ere, aspalditik. Katoliko kontserbadoreen buruzagi nagusietarik bat zen. *Réveilen* arabera, apaiztiarren alderdiaren burua (RB 49, 1891/10/25).

³⁵ 200 bat jende *Réveilen* arabera, 600 bat *Eskualdunaren* arabera (E 229, 1891/10/16). Ehun bat apaiz, bien arabera (RB, 48, 1891/10/18; “Parfait chrétien”, E 230, 1891/10/23), apaiz nagusi guztiak Baionako *Semainen* arabera (1495, 1891/10/14). Are etsai ezagunetarikoz batzuk ere (E 229, 1891/10/16).

aldeko hitzaldia egin zuen, ohi bezala, mugimendu bat antolatzeko dei eginenez³⁶. Chesnelongen hitzaldia amaitu eta gero, Dutey Harispek eta Harispek hitz egin zuten, azken honek euskaraz, Amestoy eta Goienetxe doktoreek uko egin ondoren (“Conférence de M. Chesnelong”, *Semaine de Bayonne* 1495, 1891/10/14).

Bilkuratik egun batzuetara Zaldubik *Eskualdunara* (Hiriart-Urruti adiskideari?) 6 bertso igorri zituen, eta kazetak publikatu (E 229, 1891/10/16)³⁷. Egile izenik gabe argitara ziren, eta azken koblan hau zioen: “Kanta hauk eman ditudala / nihork ez nizala sala.”. Geroago berriz landu eta osatu zituen: luzatuz (4 estrofa gehiago 3 buruzagiren laudoriotan), hautagaien giristinotasuna azpimarratuz eta beste ezaugarri batzuen garrantzia gutxituz, eta estrofa moldea doi-doi aldatuz (silaba bat gehiago bertsoleerro bakoitietan: 5+5/8A/5+5/8A/5+5/8A). Kendu zituen ere lehen idatzaldiko zirkunstantzia konkretu batzuk (Alphonse Duteyren heriotza, bi hilabete aitzinago gertatua). Idatzaldi osatuago hori 1991ko edizioan argitara zen (Adéma 1991:208-210). Doinurik ez da aipatzen, ordea, ez batean ez bestean.

³⁶ *Réveil Basquen* arabera, hitzaldia errepublikano ateo, jakobino eta framazonen kontrakoa izan zen, baita errepublikar erakundeen kontrakoa, eta mintzamolde bortitzekoa (RB 48, 1891/10/18; 49, 1891/10/25). *Eskualdunak* garrantzi handia eman zion bilkurari: 2 artikulu nagusi eta editorial bat, Eskualduna sinatua, denak euskaraz. Chesnelongen ildotik, juduen eta bereziki framazonen kontra jo zuen mintzamolde zorrotzez. “Giristino guziek bat eginez, ihardokiko dugu fedearen etsaier. / Horra laburzki zer erran darokun eta zer galdatu, iragan astehartean Hasparnen Chesnelong zenatorrak.” (“Giristino ala framazon”, E 229, 1891/10/16). Kazetak eskatzen du bozemaileek boz galdetzaleei galdetzea ea hautagaiak nahi dituzten kendu edo ez erlijio katolikoa ukitzen duten legeak: apaizak soldado joatea, fraide eta serorak eskoleatik eta eritegietatik kentzea, haurrei eskoletan katixima irakastea (“Zer galdatzen dugu?”, Eskualduna sinatua, ibid.).

³⁷ “Joanden asteartean, gorago aipatu dugun biltzarrearen ondotik, gure adixkide batek eman dauzkigu bertsu batzuk. Uste dugu gure irakurtzaileer atsegin egingen diotegula bertsu hek segidan ezartzean:

I. Mundu katoliko guzian / gora dago yaun Chenelon, / Elizaren defendatzaile, / nor da nihoiz hain zut egon. / Yin baitzaiku egun gutara / eman dezogun esker on. II. Zu Murde Labat Laphurtarra / bethi Laphurdin egona, / Aspaldi du zu zaitugula / guhauk hautatu gizona. / Ez zaiten gehiago chahar / othoitz niro Yainko ona. III. Ohore dautzugu guziek / zuri Murde Etcheverri, / Yende langileen argitzen / zu zabilta herriz herri. / Nork daki orai zuk bezala / jende beharraren berri. IV. Yaun Goyeneche zu iduriak / aise daitezke ohora, / Ez baitakizu zuk egiten / yende makurren gogora. / Zure kargutik khentzaileak / ez dire zu bezein gora. V. Biba bere andrearekin / Guichenné yaun abokata, / Zuk badakizu nola garbi / tribunaleko bokhata. / Hauzi churitzaille hoberik / ez giniro nihor hauta. VI. Ethorkisun ederra duzu / zuk orobat Murde Salha, / Maitaturen zaituzte orok / Dutey-zena zen bezala. / Kanta hauk eman ditudala / nihork ez nizala sala.” (E 229, 1891/10/16. Hasparren).

Bertso hauetan Zaldubiren asmoa ez da etsaien kontra egitea, Euskal Herriko buruzagi xuriak agurtzea (usadio zaharrean) eta gorestea baizik. Egitura garbia dute hamar koplak horiek: lehen biek zergatikoa eta xedea adierazten dute. Lehen koplak, agurrarekin, Euskal Herrian euskara ere behar dela aldarrikatzen du³⁸. Bigarrean, bilkuraren xedea: elkarren atxikimendua, bozetan erlijioaren interesen alde indar egin eta batasuna erakusteko³⁹. Ondotik, zortzi buruzagi eta hautagairen aurkezpena eta laudorioa, koplak banatan, bakoitzaren dohain edo merezimendu garrantzitsuenak azpimarratuz (egilearen ikuspuntutik, noski): Labaten fedea eta erlijioaren interesen aldeko defentsa; L. Etxeberriren jakintza eta lana nekazariekin; Garroko baroiaren ospe ona kontseilari eta giristino gisa; A. Goienetxe Donibane Lohitzuneko auzapezaren zuzentasuna eta egoskortasuna, Estatuko kargudun gorenak ezin hezia baitzen; Juantxutoren fede azkarra; Guichennéren jakintza, giristinotasuna eta etsenplua, andre euskaldun bat hautatu duelako; Salaren burua, erlijiotasuna, fortuna eta hautagai izateko nahia; eta, azkenik, haren izenik aipatu gabe, Diharasarrari apaizaren arrazoi-indarra eta luma zorrotza (“lumarik baizen ez den xoria / norik liro biphil hain merke?” X). Iduri luke Zaldubik Diharasarriren hautagaitza aurkezten duela kantu honetan⁴⁰.

1.4.2. “Tribunaletako Gurutzefikaren khentzeaz”. Lege hori onartu (1904/04/01) eta hiru hilabetera argitaratu zuen Zaldubik, berak sinatuta, *Eskualdun Onan* (EO 27, 1904/07/08; Adéma 1991:188-189). Jainkoa ukatzen duelako, Gobernuaren justizian sinesterik ez duela adierazten du egileak 7 ahapalditan, zortziko ertainean.

1.4.3. Zaldubiren kantu zaharrenetarikoa da “Zumalakarregi”, J. B. Elizanbururekin batera egin eta “Ene loreac” eskuizkribuan bildua (Xarriton 1990: 51-51; Adéma 1991: 192-193). Karlista buruzagiaren goresmenezkoa, “Eskualdunen gerlako nausia” deitua baita. Kamusarri poetaren (1815-1842) eraginez onduta da, hark kantatu baitzuen lehenago 31 bertsoetan,

³⁸ “Eskuaraz ere mintza gaitzen / iduri zait lege dela; / Eskual herrian baikare hemen / ez laite gisa bertzela: / Jaun-andereak osagarri on / Jainko onak dizuela.”, I (Adéma 1991:208).

³⁹ “Kristau frantsesak denak bat diton, / dugun entzun jaun Chenelon. / Kargudun hautu edo bozketan, / oro gaiten fidel egon: / Guk hautatuak izan ditezen / lege zuzen egile on.”, II (ibid.).

⁴⁰ Labat zaharraren ordeaz, Diharasarri presentatuko zuten diputatugai, Harriage Morroxko errepublikanoaren kontra, Baionako II. hautes-barrutian 1893ko bozetan. Badirudi 1891ko bilkurak apaizaren hautagaitza prestatzen hasteko ere balio izan zuela.

zortziko txikian (1835); izan ere, Zaldubi eta Elizanburuk beren irakaslea miresten eta haren poemak kopiatzen zituzten (Xarritton 1990:50)⁴¹.

1.4.4. E. Touyarou-Phagabururen ustez Zaldubirenak dira “Biba Bidarrai!” bertsoak, Zaldun delako batek izenpetuak (“Biba Bidarrai!, *Gure Herria*, 1931, apirila): 25 bertso, Bidarraiko 1906ko eliz-ikertzeetan gertatuei buruzkoak, Baionako apezpikuari eskainiak⁴². Guk ez dugu uste Zaldubirenak direnik zeren, besteak beste, Zaldun delakoak beste bertso batzuk ere argitara baitzituen *Eskualdunan* (E 1699, 1932; E 1765, 1934; E 1877, 1878, 1936). Zaldun hori 1930ko hamarkadako koblakari bat da, ezaguna aldi hartan; “Gure gizonak” bertsoetan, bozak hurbil zirelarik, Ibarnegarairen alde egin zuen (E 1878, 1936/04/24). Zaldunbide ote zen, Hazparneko bikarioa?

1.5. Zaldubiren alegiaren bat edo bestetan ere politika ageri da, alusio eta analogia bidez. 1887ko batean, “Erleak eta listorrak” izenekoan, liztor alferrak erle kofoin eztiz beteaz jabetzen diren bezala, hala Elizaren eta nobleziaren ondasunez jabetu Estatua. Baina azkenean erleen jabeak lehergai batez liztorrak hiltzen dituen bezala, hala Jainkoak ere etsai tzarrak laster igorriko laino beltzen leizera (infernura)⁴³. Monarkia eta Elizaren gauza handi eta ederrez eta haien ebasle eta xahutzaileez mintzatzean, eta halaber lege egile Jainkoaren kasatzaileez, Errepublikaren lege jakinez ari da egilea: eskola, armada, eritegiak eta elizak ukitzen dituzten legeez⁴⁴.

⁴¹ I. karlistateko Don Karlosen oroimenak ere bizirik zeudekeen koblakariaren buruan (Xarritton 1985:47). Aipatu ditugu Guilbeuren bertsoak ere Zumalakarregi eta D. Karlos-en goresmenez (1858, Urruñia).

⁴² “Bidarrin 1905ean gertatu setiatze entseguaren kronika dugu, estilo epikuan. Nahiz bukaeran data erdaraz eman zuen “Mars 1906” eta “Zaldun” izenpetu, estiloari dagokionez iduri luke Zaldubirena dela. Testu hori erretor ohiak herritarrei zien maitasun eta errespetuaren oihartzun ozena da.” (Touyarou-Phagaburu:2007:17). Gertaerak (imitorioak) 1906koak dira, ez 1905ekoak.

⁴³ Hona azalpena, azken hiru bertsoetan: “Lehengo Printzer eta / Elizari esker, // Bazen hainbertze gauza / handi eta eder. // Heien ebaslez eta / xahutzailez leher // Lehengo jabe-eri dire orai aiher.”; V. “Lehengo asmuak / aise baliatuz, // Berenak dituztela / dagozi espantuz. // Berak lege-egile, / Jainkoa khasatuz, // Jenden kontzientzia / hil dute debekuz.”; VI. “Lanho beltzen leizea gakhos dadukana / Hasarre bethean da; ez gaiten engana. / Leizea zabal dadin laster diro mana, / Bolbora lanho batez handi da fama.” (RIEV II, 1908:768-769; Adéma 2008:116-118).

⁴⁴ Eskola legeek (1880-1886) erlijioaren irakaspena, katixima eta otoitza eskola publikoetatik kendu zuten, bai eta jesuitak herbesteratu eta kongregazio tolerantuei baimena eskatu beharra ezarri (1880). Armada esparruko legeek (1883-1884) soldaduentzako mezak kendu zituzten, baita kapilautzak, eta armadari arma ohoreak egiteko eliz-ettean sartzea debekatu. Eritegiak ukitzen zituztenek (1881) serorak eta eliz-jendea eritegiatarik kanpo ezarri zituzten. Elizak ukitzen zituztenek (1884) auzapezei eman zieten elizak zaintzeko eginbidea eta herri-bilkuretarako eliz-ekzila jotzeko eskubidea. Aipagarria da dibortzio legea ere (1884).

2. ZALDUBIREN ERAGINA *ESKUALDUNAN* ETA HIRIART-URRUTIREN ARTIKULU NAGUSIETAN

Beraz *Eskualdunak* “Betirisants” eta “Errepublika” hainbat aldiz argitaratu zituen; batzuetan kazetaren lehen tokian eta asmo jakinaz, azaldu dugunez. Horretan kazetaren jabeak, L. Etxeberriek, interes berezia erakutsi zuen (Ik. 1. eranskina). Zaldubiren beste zenbait kantu eta artikulua ere kazetako artikulua nagusi izan ziren: “Donibaneko erroboteko partida” (E 532, 1897/08/27) eta “Eskual-herriko eliza bestak” (E 626, 1899/06/16), azken hau aitzinago liburuska gisa argitaratua (Baiona: Lasserre, 1898).

Zaldubiren alegiez ere baliatu zen *Eskualduna*, edo, zuzenkiago, Hiriart-Urruti: haren alegietako ideia, irudi, motibo, adierazmolde eta esamolde berak –batez ere etsaiak eta haien jokaera politiko edo morala gaitzesten dituztenak– darabilta geroago kazetako idazleburuak bere artikulua nagusietan. Aipatu dugu “Erleak eta listorak” alegia, *Eskualdunan* ere argitaratua (E 1145, 1909/03/19). 1857ko “Hitzuntziak” alegian ageri diren listafinen metafora usu darabil Hiriart-Urrutik, aurrekoan “liztor” darabilen era berean, ‘alfer bizkarkinak’ nahiz ‘gaizki esaka ari diren’ pertsona pozointsuak adierazteko. Alegia hori behin eta berriz argitaratua izan zen (E 1898/05/27; E 1171, 1909/09/17). 1850 inguruko “Khuia eta Hezkurra” alegia ere maiz argitaratu zuen kazetak, Perttoli jaun jakintsua edo abila bezalakoak gaitzesteko: “Mundu huntan Jainkorik / nahi ez dutenak, / Orogen makhurtzeko / hek dire lehenak” (RIEV II (1908):761). *Perttoli* pertsonifikazioa *pertoli* hitzetik eratorria dateke (‘kaskarin’, ‘txoriburu’, ‘tonto’)⁴⁵. 1880ko “Pattin dirudun ez

⁴⁵ K. Izagirrek dio: “Fraide edo apaiz integrista ikaragarri batek, Hiriart-Urrutik, politiko baten abizenarekin egindako burla pasatzea, “perttolikeria” alegia, gure hiztegiatar gezurraren sinonimo bezala, ikaratzekoa da. “ (*Bost idazle. Hasier Etxeberriarekin berbetan*. Alberdania 2002. 102. or.). Izagirrek dioenari ohar zenbait egin behar dizkiogu. Lehenik, haren arabera, *perttolikeria* hitzak M-H. Berdoly diputatu eta senatari errepublikarra (1844-1905) aipatzen du zeharka (Berdoly + -keria). Guk uste dugu *perttolikeria*, *perttolikeria* hitzak *pertoli*, *perttoli* izenondotik eratorriak direla (*perttoli* + -keria); *perttoli* hitz arrunta da ‘kaskarin’, ‘pikabuztan’, ‘tonto’ adierazten duena, ez ‘gezurra’ (Lhande, OEH), *perttolikeria* “L. sotisse, bêtisse.” (Lhande). Bigarrenik, *pertoli*, *perttoli* hitza Zaldubik darabil Hiriart-Urrutik baino lehen (Zaldubi, “Khuia eta Ezkurra”, RBPL, 1886, III:85; E 12, 1887/08/13; geroago, E 509, 1897/03/19; 1893-1897 esk., RIEV, 1908, II:761). Zaldubik *Perttoli* pertsonifikazioa (“*Perttoli* jaun jakintsuna”, “abila”) *a contrario* izendatua den ironiaz darabil.

Ez dugu erabat ukatzen Zaldubik eta Hiriart-Urrutik *pertoli*, *perttolikeria* hitzak erabiltzean Berdoly gogorarazi nahi izatea, are Zaldubik hitza bera Berdolygan pentsatuz sortu izana, baina hipotesi hori ez dateke sinesgarriena. Gainera, nola azaldu B- © P- eta -d- ©

fededun” alegiako pertsonaia Ameriketatik dirua irabazita baina fedea galdua datozen euskaldunen irudia da (E 1898/04/08; E 1909/08/20). Gai hori maiz erabili zuen kazetak.

Zaldubiren beste irudi batzuk ere baliatzen ditu Hiriart-Urrutik bere disurtsoari indar emateko, adib. bidera ateratzen diren ohoinena: “Ohoiak ere berdin, biderat atheraz, / Lege egile dituk, indar nagusi beraz.” (“Errepublika”, E 1888, XXII). Edo *errekak behera* irudi eta esamoldea, lehenagoko gauza onen hondamendia adierazteko: “Itzulika hoietan / maldari behera / (...)” (“Errepublika”, 1894-1897ko eskuizk., II; “Ez gaituk nihoiz izan (...) hoin murrizt errekan”, 1908, XIII). Halaber zenbait ideia: etsaiak amarrua eta lausengua darabiltzala taktikatzat mundua biltzeko: “amarru segura / Jin zaiok burura / Hain aphaletik igaiteko tronura / Pherekatuz jende makurra / (...)” (“Betirisants”, E 46, 1888/04/06). Edo euskal haurrak arrotzen (hots, erriente) esku zirelakoa: “Arrotzak ja ditugu gure umen jabe” (“Errepublika”, E 34, 1888/01/13, XXVII). Jokaera moralari dagozkion beste ideia anitz ere bi idazleetan ageri dira: gurikeria, zernahi bidez gora heldu nahia (ik. Zaldubiren “Mende jende mendre”, E 559, 1898/03/04, IV-V; Adéma 1991:149-150).

Hiriart-Urrutik usu baliatzen dituen hainbat esamolde eta adierazpide ere Zaldubiren kantuetan ageri dira. Artikulu nagusien izenburuetan erabili ohi ditu askotan. Adib., “Oro errege” izenburuko artikulu nagusia honela hasten da: “*Errepublika* Frantzian nausituz geroz, oro errege gira” (E 313, 1893-05-26). Hona Zaldubiren esana: “Lehenago denboretan errege batto zen. / Orai oro errege: hori duk hoi zuzen!” (“Errepublikari xistu”, E 23, 1887/10/28, III). “Oro kargudun” izenburuak (artikulu nagusia, E 1118, 1908/09/11) Zaldubiren esana dakarke burura: “Errepublikan daite nor nahi kargudun” (“Errepublika”, E 1888, X). Orobat Hiriart-Urrutik usu darabilen *Txarrenak amur!* esamoldea, hori baita “Betirisants”en lege berria: “Indarraren meneko dela zuzena. / Nor baita txarrena, / Hark dik hark hobena; / Gaixtagin azkar den bat nola kondena?” (E 606, 1899/01/27, IV). Edo *jaun xanfarin, mandril, jaunxkila* eta gisako kalifikatiboak (lehen biak “Betirisants”en, E 606, 1899/01/27), azkena “Errepublika”n (E 1887, XV). Nago ere ez ote zuen

-t- aldaketak? Perttoli jaun jakintsua ageri den alegia 1850 ingurukoa da, orduko “Ene loreac” eskuizkribuan bildua baitago (Xarritton 1985:48) baina ez dakigu 1850ko bilduma horretan badenez Perttoli hori, XIX. mendeko beste kopia batean (Hiribarrenena?) ez baita ageri (Lafitteren artxiboa, 401, 003-44). 1886an publikatu zenean, Berdoly, Mauleko suprefet ohia, Donapaleuko kontseilari jeneral hautatu berria zen, ez zen oraino diputatu ere.

Zaldubik Hiriart-Urrutiren burutan ipini “Hilak hil” ipuin politeko izenburua bera (Hiriart-Urruti, RIEV, 1907, I, 617-623), hau baitio Zaldubik 1882ko “Mende jende mendre” alegian: “Ongi-egile gutiz / orhoit da mundua, / Ahaidetan beretan / labur da dolua! / Hila hil! osoki da / etxetik kendua, / Bai eta hark utzia harentzat galdua!” (“Mende jende mendre”, E 559, 1898/03/04).

Estilo ezaugarri zenbaitetan ere bat datoz bi idazleak: adib. sarkasmoa sententzia estiloarekin elkartuta, garbiki mintzatzea, erretizentzia. Hona Zaldubiren adierazpide bat: “Orai zer nahi libre, bertzek bainan ez nik” (“Biba Republika”, 1876 Sara, XI). Hiriart-Urrutiren molde bereko hau gogoratzen digu: “Ez dute nahi jaun garbi horiek ohointzarik...bertzek egitea” (E 860, 1903/12/18).

Beraz, Hiriart-Urrutik ongi ezagutzen zituen Zaldubiren kantuak, ideiak, irudiak eta adierazmoldeak, eta baliatu zituen bere artikuluetan. Batak eta besteak erabili ohi dituzten ideia eta irudi askok bi idazleen arteko sintonia erakusten dute. Zaldubiren poesia profanoak eta alegiak *Eskualdumako* politika editorial eta ideia nagusien ildoan kokatzen dira eta editorial artikuluen baten funtzioa dukete.

3. ZALDUBIREN HARREMANAK POLITIKARIEKIN

Zaldubik harreman ugari izan zituen politikariek: hemen, lehenik, buruzagi xuriekikoak azalduko ditugu, gero Atharratzeko auzapez Péeseekin hark edo bestek izaniko ika-mika, ondoren Elizanburu eta Guilbeaurekin, Déroulède frantses eskuindarrarekin, eta azkenik ideologia hurbileko zenbait euskaltzalarekin (Abbadia, Bernadou) izandako harremanak.

3.1. Gerterek aginduta, buruzagi xuri batzuekin gutun bidezko harremanak eta aski konfiantzazkoak izan zituen. L. Etxeberri eta A. Dutey Harispe xuriekikoak nabarmendu behar ditugu hemen. Aipatu ditugu “Betirisants” eta kantu profanoen inguruan Zaldubik L. Etxeberriri 1888ko gutun horretan esanak (1. eranskina). Diotso, gainera, harentzat ari dela lanean, aisia duelarik; apo-harmatu bat bezain urriki ari dela bere poesiak lantzen, eta Etxeberriren zalutasuna miresten duela; hark erakutsi dion interesak bere poemak lantzarazi dizkiola; bere eskuizkribuaren 3. edizioa lantzen ari dela azken hiru urteetan; bi sorta edo kaier igortzen dizkiola; uste duela *Eskualdunan* zenbait pieza argitaratuko dizkiola, geroago edizio osoa argitara baino lehen.

Berriz 1901ean, L. Etxeberri bere kazeta ixteko puntuan zela –Jauffret apezpikuarekiko tirabirengatik–, zenbait lagunek eskatuta, Zaldubik arartekolana egin zuen Etxeberri *Eskualduna* ez zezan geldiarazi: A. Dutey Harisperi

konfiantzazko gutuna egin zion, honek L. Etxeberrigan eragina zuelako⁴⁶. Adémak gutun horretan diotso Duteyri: zenbait lagunek eskatuta galdegiten diola ez dezala *Eskualduna* geldiarazi, katolikoentzat kazeta ona delako. Dutey Harispek eskatzen dio Etxeberriri, hauteskunde asmoz ez bada, laborari katolikoan onetan behintzat atxiki dezala *Eskualduna* (*ikus bi gutunak 2. eranskinean*). Gutun horietan ageri da *Eskualdumaren* ixteak atsekabe handia sorrarazten zuela euskaldun katoliko eta apaizen artean; Zaldubik konfiantza zuela Dutey Harispe jauna baitan, harekin harremanetan baitzen bere poesiak argitaratzeko; eta begi onez ikusten zuela Etxeberri eta uste zuela apezpikuak gaizki erabili edo leku txarrean ipini zuela. Duda gabe, prestigio handiko norbait zen Zaldubi.

Aipatu ditugu laburki A. Goienetxe Donibane Lohitzuneko auzapezarekiko harremanak. Zaldubik ohorezko tokia izan zuen Goienetxek antolatu Donibane Lohitzuneko euskal festetan (1892, 1894, 1897). Kusiak bide ziren, gainera. Hazparneko 1891ko bilkurako koblek erakusten dutenez, aski garbi ageri da Zaldubik harremanak zituela buruzagi xuriekin: Labat, Guichenné, Diharasarri, Sala (*ik. 1.4.1*). Pentsatzekoa da Atharratzen zelarik d'Etxandi notario eta xuri buruzagiarekin ere izanen zituela.

3.2. 1891ko uztaillean Pées Atharratzeko auzapez gorriak, uste izanik Adéma zela *Semainen* agertu gutun polemiko baten egilea, kalonjearen kontra bortizki jo zuen *Réveil Basquen*. Gutunaren sinatzaileak, 'Un Catholique basque' delakoak, Péesek Jaufret apezpikuaren aitzinean esandakoei ihardesten zien, auzapeza "apaiz-jale" deituz. Péesek delako kalonjearen kontra (hari buruz zeharka mintzatan zaio Lasserre *Semaineko* idazleburuari: "certain chanoine de votre connaissance") inon direnak esaten ditu: buruko usain txarra eta herrabiazko elderra zeriola, zaharra bezain sineskorra zela, apaiz tripahandia, katoliko txarra, fariseokia, hipokrita eta gaiztoa, xikanaz betea eta ahalkegabea⁴⁷.

⁴⁶ Albert Dutey Harispe, Lakharrako jauna, Garaziko konseiler xuria zen. Dutey Harispe hori Alphonse Dutey, Lekunberriko jaun eta Garaziko kontseilari orokorraren iloba edo ahaide zen; Alphonse Dutey 1891n hil zen (ik. E 222, 1891-08-28). Dutey biak goiraipatuak dira Zaldubiren "Chenelon..." kantuan (ik.1.4.1).

⁴⁷ (Péesen ihardespeneren zati batzuk). "les odeurs capituses que vous exhalez naguère dans nos rues (...)" "Vous avez cru, d'ailleurs, qu'en signant vos élucubrations 'Un Catholique basque' vous étiez à l'abri de mes justes représailles, vous vous êtes imaginé que, masqué par cette désignation, vous pourriez sans le moindre danger me jeter votre bave rabique, et que peut-être même vous ne seriez reconnu ... Ô naïveté senile!!! Pour se servir utilement de l'anonyme, Monsieur, il faut être doué d'une souplesse d'esprit et de style qui vous fait absolument défaut. Il faut enfin être un homme à peu près comme les autres – ce que vous n'êtes pas." "Vous n'avez jamais su ou bien vous avez oublié – tandis que vous consacriez le meilleur de votre temps à enfler d'*Irouléguy* votre sacerdotale bedaine – que le mot *cependant* avait deux significations complètement distinctes". "Saisissez-vous, ô Zoïle grincheux, comprenez-vous, ô docte agrégé de la faculté de Bidarray?...". "Vous insinuez que je ne suis pas un bon catholique. (...). Mais des là à être un "mangeur de curés pour ainsi

Baionako *Semaine* eta *Eskualdunak* erantzun zuten esanez kalonje agurgarria ez zela gutunaren egilea, haren aurkako irainak baino gorago zegoela; nor izan zen salatu gabe, ordea. Adémak berak ez zuen erantzunik eman kazetetan. Tronpatu ote zen Péés?

Adémaren kontrako itsuskeriok eta polemika bere lekuan kokatu behar dira. 1889ko bozen ondoren (non L. Etxeberri xuria diputatu jalgi baitzen Mauleko hautes-barrutian), Péés eta beste errepublikano batzuk apaizen kontra mintzatu ziren, bozetan politika egiten ari izan omen zirelako; ondotik, zenbait apaiz tokiz aldatuak izan ziren, zenbaitu paga kendu zitzaient, etab. Jauffret apezpikua Atharratzen zelarik bisitan eta haurrei sendotzako sakramendua ematen, Péések apezpikuari eskainitako topa-egite batean eginiko hitzaldia *Réveil Basque* publikatu zuen (RB 32, 1891/06/28. Tardets), ondotik polemika abiaraziz⁴⁸. Péés protagonista duen polemika hau gorrien eta xurien arteko borroka politikoan kokatzen da; Péésen hautaketa bera, d’Etxandi baztertuz, urteetan salatu zuen *Eskualdunak*, hilabete bat lehenago ere bai (E 1890/02/28. Tardets; RB 35, 1891/07/19). Kazeta xuriak egotzen dio ere Péesei, Ségalas-ekin batera haurrei eskolan kopiarazi izana Berdolyren gutun bat 1890ko boz egunetan (E 1891/07/10). Ika-mika hauek guztiak *Réveil* eta *Eskualdunaren* arteko polemika etengabekoaren atalak besterik ez dira. *Réveilek* Jauffret apezpikua abonatzan zuen⁴⁹. *Eskualdunak* zioen apaizek

dire de profession” il y a loin. Non, Monsieur, je ne suis pas un mangeur de curés, je me nourris beaucoup mieux que cela. La vérité es que je déteste l’espèce –heureusement rare- du curé genre Pharisien, hypocrite et méchant, tracassier et insolent, autant je vénère le véritable prêtre, *digne, correct et doux*” (RB 34, 1891/07/12. Le Pays Basque). Azken hau esatean, Péések Adéma honen ondokoarekin, Uhart Atharratzeko apaiz-nagusiarekin konparatu nahi zuen, ironiaz: “Là, M. le doyen, -ce prêtre si digne, si correct et si doux, que nous nous félicitons de plus en plus de posséder- a souhaité la bienvenue à l’évêque en des termes excellents” (RB 32, 1891/06/28).

⁴⁸ Hona xehetasun gehiago: *Eskualdunak* Péésen hitzaldiari eginiko ihardespén bat publikatu zuen (“De plus en plus forte”, E 214, 1891/07/03, Nouvelles du Pays), baita Baionako *Semaine* kazetak (Un Catholique basque, *Semaine de Bayonne* 1463, 1464, 1891/07/01, 07/04, Arrondissement et Pays Basque). Berriz *Eskualdunak*: Péések salatu zituela apaizak, zigortuak izateko; Intxauspe urruntarazi zuela. Hauteskundeez dio kazeta xuriak: “nous metrons les élections sur le terrain religieux tant que ces lois antireligieuses subsisteront”, eta Bossuet aipatuz, Jesukristoren hizkuntza bikoitza zela: “Dieu ne nous donne un esprit de crainte, mais un esprit de force et de charité” (E 215, 1891/07/10). Ondoren Péések *Réveil*en arrapostu bana *Eskualdunari* eta *Semaine*ko ‘Catholique basque’ delakoari (RB 34, 1891/07/12), Adémaren kontra joz, *Semaine*ko Lasserre idazleburuari zuzendutako gutunean (*Semaine de Bayonne* 1465, 1891/07/08), eta idazleburuak ere polemikan parte hartu. *Eskualdunak* ere erantzun Péési (“Un drole de convive”, E 216, 1891/07/17).

⁴⁹ “L’évêque aux idées libéraux qui est loin de voir dans la République cette persécutrice de la religion tant honnie par le clan réactionnaire” (RB 32, 1891/06/28. Tardets)

dotrina egiazkoa predikatu behar zutela, are giristinoen eginbidea bozetan. Funtsean, erlijioa interes politikoekin nahasten zuten batzuek eta besteek.

3.3. Elizanbururekiko harreman adiskidantzazkoak aspaldikoak zituen Zaldubik; elkarrekin eginak zituzten zenbait kantu. Geroago, politikak bereizi zituen bi gizonak. Baina badirudi, saratarraren hilberrian Hiriart-Urrutik dioenetik, Elizanburu hiltzer zela Zaldubik bisitatu zuela eta adiskidetu zirela, bai eta koblarari errepublikanoa kristau gisa hil zela⁵⁰.

Elizanbururekin ez ezik Guilbeaurekin ere adiskidetu zela dirudi (Xarritton 1992:61). Hendaia (1901) eta Hondarribiko (1902) bilkuretan elkarrekin lan egin zuten, Zaldubi buru, Guilbeau idazkari, ortografia batzeko eta Eskualzaleen Biltzarra sortzeko asmoz; gutun zenbaitetan ere ageri da Zaldubik Guilbeauren euskalduntasunean sinesten zuela (Xarritton–Ouret 2003,1:231).

Harreman ona izan bide zukeen Zaldubik Otxalde aspaldiko adiskide gorriarekin ere; harekin batera ondu zuen Xuriko (1867), eta haren “Kantu berriak” izenekoa, Donibane Lohitzuneko Euskal Bestetan ohorezko 3. aipamena jaso zuena, itzuli zuen frantsesera (Ch. Bernadou, *Zazpiak Bat*, Baiona, 1895).

3.4. Zaldubik Déroulède eskuindar politikaria bisitatu zuen Donostian (1902). Déroulède (1846-1914) La Ligue des Patriotes deitu batasunaren sortzailea zen, antisemita eta golpista. Frantziatik kanpora desterratua, Donostian zegoen eta hara joan zitzaion ikus bat egitera Zaldubi zaharra; hartako bi kobla egin eta eraman zizkion, Déroulède ere koplaria baitzen⁵¹. Kronikagilearen arabera (Blaise Adéma, Zaldubiren iloba?) “Déroulède hainiz laño agertu zen Zalduby zaharrarekin. Erran zion zenbat onhartzen zituen haren agurra eta koplak, eta eman zion liburutto bat bere kopletarik ederrenak

⁵⁰ “Eta atseginekin ikusi dugu, ohartu denean hiltzera zoala, nola berak galdaturik ekarrazazi duen herriko artzaina; eta harekin batean, bere lehengo adiskide eta eskolako lagun apezetarik bat. Adiskide apez hari nahi izan dio hil aitzinean bere bihotza ideki. Eta eza gutza osoan, sendimendurik hunkigarrietasan egin ditu bere azken urratsak, erlisionearan laguntza guzietan nahi izan du agertu Jainkoaren aitzinean. Nunbeitik ere beti haur denboran ikasi gauza onez oroitzen da zahartzeari buruz, eta bereziki hiltzeari buruz, bere baitarik barne ona duen gizona. Jainkoak egin dezotela adin batean, gisa bat edo bertze, bere erlisione ahanzten duten guzietan, aski goiz beren eta bertzeengatik oroitzeko grazia!” (E 241, 1892-I-8. Espelette).

⁵¹ Hona bi estrofa horiek: “Frantziako gizonetan bihotzez hoberena / Lurrez gabetu baitute, zer zen haren hobena? / Gizon makurrentzat beti hobendun da zuzena. / Ez othe da gorestekoa hola hobendun dena?”, I.

“Lurreko jendekietan ez bide da bihirik / Eskualdun jendea bezen libro bizi nahirik. / Derouledetik, eskualdunak zer diren ikusirik, / Atsegin du bizitzerat gu ganat etorririk.”, II. (Altzibar 2006:37-38).

zauzkana, hitz hauk bere eskuz izkribatu ondoan: “Eskualdun koplariari, eskualdunen adiskide batek orhoitzapen eta milesker” (E 1399, 1914-2-6, 1. or. Asteko Berriak).

3.5. Jakingarria da ere Zaldubik nolako harremanak izan zituen politikari ez baina ideologia bertsuko beste jaun batzuekin. Ondoren, Abbadia eta Bernadourekikoak aipatuko ditugu soilki. A. Abbadiarekikoak, elkarren arteko gutunetan ageri direnak behintzat, bereziki neurtizlarien guduei buruzkoak dira. Jakina da Zaldubi sarituetariko bat izan zela. Baina, 1892tik aitzina behintzat, epaimahaikide ere izan zen zenbait urtez Abbadiaren festetan: 1892an, 1893an (Azpeitian sariak ematen izan zen Abbadiarekin batera, eta han agertarazi zuen “Gauden eskualdun” ospetsua) eta 1894an bederen; azken urte horretan eta hurrengo bietan Madalen Larralde sujeta ezarri zuen Abbadiak, 1789ko Iraultzak martiri egin omen zuen neskatxaren istorio manipulatu.

Elkarren arteko gutunetan politikazko konturik ere aipatzen zuten. 1893ko gutun batean, bozen aitzin egunetan, Abbadiari esaten dio Zaldubik Diharasarriren kontra eta Harriage Morrozkoren alde izugarrizko presioa egiten ari direla administrazioa, juduak eta masoiak. Eta bere nahigabea erakusten dio “euskaldun gizagaixo” en etorkizunari buruz. Hor ageri da Abbadia eta Adémaren arteko harremanak konfiantzazkoak zirela⁵².

Zaldubik Abbadiari eskaini zion bere “Eskualdunak” kantua, Donibane Lohitzuneko euskal festetan ematen hasi zirena (1892) (Adéma 2008:181). Zaldubi saiatu zen zenbait urtez Abbadiari euskal Akademiaren beharra burutaratzen eta horretarako dirulaguntza eskatzen, uste baitzuen orduko legeekin

⁵² (Adémak Abadiari, Baiona, 1893/08/14; idazkia ez da ongi ikusten). “Nous avons encore bien autre chose à faire avec nos élections. Je sais que vous êtes au courant de ce qui se passe, et que vous favorisez de votre mieux notre unique candidat catholique Mgr Diharassary. Il y a, comme on devait s’y attendre, une effroyable pression administra[tive] et judéo-maçonnique exercée en faveur de son concurrent Harriage Morrochko, maire d’Hasparren. Cet homme, douze fois millionnaire, est le roi et presque l’idol de Hasparren dont la population vit [?] en partie de lui. Encore hier, ce très brave et loyal candidat faisait lacérer immédiatement les affiches de M. Diharassary au fur et à mesure de leur collage. / Pauvres basques! Que devenerons-nous? / Récevez, Monsieur le Président, vous le grand soutien de notre patriotisme basque, ainsi que Madame d’Abbadie qui en vous épousant épousa si noblement tous nos sentiments et tous nos enthousiasmes, les hommages de votre très humble et léal serviteur Gr. Adéma”. Hemen ere Zaldubi euskaldunen izenean mintzo da. Inork ez jakin, baina, etorkizunaren berri: handik urte batzuetara Harriage Morrozkoren alde egin zuten apaizek ere. Adéma eta Abbadiaren arteko gutunak ik. BnF 21746; 21746.2-223-228. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.

eta egoera soziolinguistikoarekin euskarak ezin zuela iraun, eta Akademia bat behar zela ortografia bateratzeko etab. Baina Abbadiak bere ondasunak Pariseko Zientzien Akademiari eman eta Zaldubi une batez etsitua egon zen (Zaldubik Azkueri, 1896/02/22). Orduan lotu zitzaion ortografia batzeko eta euskalzaleak elkartzeko lanari (Hendaia eta Hondarribiko kongresuak, 1901, 1902).

Ch. Bernadouren liburuetan Zaldubik presentzia handia eta orrialde mordoxka betetzen du: adiskide eta bidaiialagun gisa Azpeitiko Lore Jokoetan, edo aspaldiko pasaizu eta oroimenen kontalari gisa (adib., Kaskoinaren esana izurritearen ondorioz hiltzer zela, edo Iparragirreraren itxura Larresoron kantatu zuenean, 1845 edo 1846an apaizgaien buruak kontatu zuen moduan). Liburuotako baten izenburuan ere (*Zazpiak bat*) nabarmena da poetaren eragina. Liburuotan 1893 eta 1894ko poesia sarituen testuak agertzen dira, Zaldubiren frantsesezko itzulpenarekin⁵³. Bernadou baiones gaskoina zen, euskalzalea eta xuria.

Zaldubi *Semaine* kazetako zenbaiten adiskide zen. Haren hilberrian “*Semaine Religieuse*” saileko idazleak kontatzen du Zaldubi aspaldiko adiskidea zu(t)ela⁵⁴.

Laburbilduz: Zaldubi poetak, bere mendeko apaiz katoliko gisa, erlijioaren ikuspegitik begiratzen zuen mundua. Kantuen bidez, ez bestela, agertu zuen bere burua III. Errepublikaren aurka. Politika sartu zuen Abbadiaren Euskal festetan (1874-1876), zatiketa, polemika eta errepublikanoen erantzuna ekarriz. “*Betirisants*” eta “*Errepublika*”n, satira generoan, Errepublikaren eta masoien kontra ez ezik errepublikanoen kontra jo zuen, dena piko eta trufa. Tradiziozko bertso-molde eta doinuei egokitu zituen kantuok, jendeak kanta zitzaiz. Etengabe berregin eta garatu zituen, lege eta gertaera berri arauka, adierazmoldeak ere beti landuz; bertsiio zenbait ere argitaratu zituen

⁵³ *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893 par Charles Bernadou. Suivi de la Marche de saint Ignace et autres poesies basques avec musique.* (Se vend au benefice des Écoles Chrétiennes libres). Baiona: L. Lasserre, 1894. *Zazpiak bat*. Baiona: Lasserre, 1895. Azken hau A. Goienetxeri, Donibane Lohitzuneko auzapezari eskainia. 1897ko Tradizioaren Kongresuko informea ere idatzi zuen (*La Tradition au Pays Basque*, 1897; Elkar, 1982. Bernadouren arabera, Zaldubik minez gogoratzen zuen sorterri-kantu bat, 50 urte aitzinago kantatu ohi zena, hauxe: “Laphurdi, Baxenabarre / Zuberoa heiekin / Gerlara juan behar gira / Guziak elgarrekin / Madrileko plazaraino / Guziak lerro-lerro / kantatzen dugularikan: / Bego Frantsesa libro.” (aip. lib., 36). Kantu hau tradiziozkoa da.

⁵⁴ “C’était un ami de très vieille date, et don’t la visite, presque quotidienne depuis des années, nous réservait sans cesse d’ingénieuses et enthousiastes remarques en l’honneur de l’euskara. Quelle délicieuse impression de delicate bonté se dégageait des moindres paroles de cet aimable et confidant vieillard!” “*La Semaine Religieuse*”, *Semaine de Bayonne*, 3179, 1907/12/11. Nork idatzia ote? Lasserre? J.-B. Daranatz?

Eskualduna kazetan. Zaldubiren politika kantuak gure XIX. mendearen bigarren erdiko historia eta literaturaren lekuko interesgarriak dira.

Zaldubiren eragina, bere garaian, ez da gutxiestekoa. Nabarmena da J. Hiriart-Urrutiren (1859-1915) politika artikuluetan izandakoa, batez ere irudi eta adierazmoldeen erabileran. Jaun xuri eta euskalzale jakintsu frankorekin izan zituen harremanak, errepublikanoak barne, ezaguna eta estimatua baitzen euskara eta euskaldunen munduan.

BIBLIOGRAFIA

- ABBADIA, A. Gutunak. BnF. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 1908. *Oeuvres du chanoine Adéma*. RIEV, 1908, II, 83-94, 203-213, 284-296, 410-420, 602-610, 757-774.
- 1909. *Oeuvres du chanoine Adéma*. RIEV, 1909, III, 103-109, 226-233, 396-400.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 1991. *Gratien Adema Zaldubi. Kantikak eta neurtitzak*, EEE, Klasikoak. A. Bengoetxearen sarrera eta edizioa.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 2007. *Predikuak saindu batzuen biziaz*. Euskaltzaindia. Euskaltzainak bilduma. H. Duhauren sarrera eta edizioa.
- ADÉMA, G. (Zaldubi). 2008. *Artzain beltzaren neurtitzak*. Euskaltzainak bilduma. Euskaltzaindia. H. Duhauren sarrera eta edizioa.
- ALTZIBAR, X. 1998. “Art poétique basque” Adéma “Zalduby”rena”, *Lapurdum* III. 77-101.
- 2006. “Adéma-Zaldubiren hitzaldi, artikulua eta kantu zenbait”, *Lapurdum* XI, 2006ko azaroa. 7-39.
- 2007. “Adema Zaldubyren (1828-1907) prosa idazlanak”. *Euskera* 2007, 3. 1033-1059.
- ARGINZONIZ, A. M. 1890. *Euskal Erria*, XXIII. 176-179.
- AZKUE, R. M. Gutunak. Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka. Ik. Irigoyen, A.
- BENGOETXEA, A. 1991. Ik. Adéma, G. (Zaldubi), 1991.
- BERNADOU, Ch. 1894. *Azpeitia. Les fêtes euskariennes de septembre 1893 par Charles Bernadou. Suivi de la Marche de saint Ignace et autres poesies basques avec musique*. Baiona: L. Lasserre.

- 1895. *Zazpiak bat*. Baiona: Lasserre.
- Bertso-paperak. Bonaparteren fondoa. Newberry Library* (Chicago). I, II, III.
Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsultagai.
- BILBAO, J. 1970-1981. *Eusko Bibliographia*. Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco.
- Courrier de Bayonne*.
- DARANATZ, J. B. 1908a. “Le chanoine Adema”. RIEV, 1908, II. 121-124.
- 1908b. *Eskualduna*, 1088/02/14.
- 1913. “Le chanoine Adéma”, in *Congrès de Musique sacrée tenu à Bayonne les 21, 22 et 23 novembre 1913, sous la Présidence de S. G. Mgr Gieure, Evêque de Bayonne, Lescar et Oloron*.
- 1914. “Vascófilos contemporáneos. El canónigo Adema”. *Euskalerriaren Alde*, 4. urtea. 134-137.
- DUHAU, H. 2007. Ik. Adéma, G. (Zaldubi). 2007, 2008.
- ELIZANBURU, M. (Fr. Innocentius). 1890a. *Zer izan diren eta zer diren oraino framazonak munduan*. Baiona.
- 1890b. *Framazonak (bigarren edizioea) eta Frantziako hirur Errepubliken ixtorioa laburzki*. Baiona.— Klasikoak, 1988. G. Fraileraren sarrera eta edizioa.
- ETXEPARE, J. 1909. *Buruxkak*, Tours, Mame. —1992. EEE, Klasikoak 59, I. Arrigainen edizioa.
- Euskera*. 2007. Gratien Adema “Zaldubi”-ren mendeurrena (1828-1907). Senpere, 2007-XII-20. Euskaltzaindia. *Euskera* 2007, 3. 871-1086.
- Eskualduna*. 1887-1903; 1908-1944.
- Eskualdun Ona*. 1904-1907.
- Euskal-Izkribatzalleen indar neurtzea, 1879ko Agorrillaren 7garren egunean Donostian eguiña, orretarako artu diran prestamen eta sariztatuak izan diran izkribu antolamenduen oroitza*. Donostia: A. Baroja, 1879.
- GOIHENETXE, M. 1987. *Lapurdi historian*. Elkar.
- GONZALEZ ETXEGARAI, K.—ARANA MARTIJA, J.A. 1989. *Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe Luis Luciano Bonaparte que se hallan en el País Vasco, con un Índice de nombres de personas, lugares, lenguas y dialectos y un Catálogo de publicaciones hechas por el mismo de algunos de los manuscritos o referentes a ellos, que se hallan en las principales*

Bibliotecas del País Vasco, por Gonzalez Echegaray (Markina, 25-9-1983), corregido por Jose Antonio Arana Martija (Bilbao, 17-1-1989). Euskaltzaindia, Azkue Biblioteka, 1989.

GUILBEAU, M. 1874. “Fête de Sare. Concours de Poésie basque”, *L’Avenir de Bayonne*, 1874-IX-19. G*** sinatua.

HARITSCHELHAR, J. 1988. “Recueils manuscrits de chansons basques”, *ASJU* XXII-2, 445-461.

HIRIART-URRUTI, J. 1907. “Gratien-Adéma apheza”, *Eskualdun Ona*, 1907-XII-20.—*Mintzaira, aurpegia: Gizon!*, Jakin, 1971 (P. Lafitteren antologia).

— 1977. “J. Hiriart-Urruty jaunaren Euskaltzaindian sartzea: Hazparnen, 1977, martxoak 27”. *Euskera*, 1977-2. 323-360.

INTXAUSPE, E. 1883. *Jesu-Kristen Imitacionia. Çuberouko uskaralat utzulia*. Baiona: A. Lamaignère.

KALTZAKORTA, J. 2004. “Notas acerca del personaje Betiri Sants”, in *Litterae Vasconiae* 9, 187-231.

IRIGOYEN, A. 1957. “Del epistolario de Azkue”. *Euskera*, 1957. 261-397.

KORTAZAR, J.-BILLELABEITIA, M. 1987. *Poesía bascongada. Dialecto vizcaíno*. Bizkaiko Foru Aldundia.

LAFITTE, P. Artxiboa. Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan.

1874. *Neurtiztarien (sic) gudua. Saraco Bestan*. Baiona: A. Lamaignère. *Bertso-paperak. Bonaparteren fondoa. Newberry Library (Chicago)*. I, II, III. Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekan kontsultagai.

ORPUSTAN, J.-B. 1994. “Idéologie pro-révolutionnaire et poésie: le Lehen eta orai de J.B. Elissamburu (1879)”, in *La révolution française dans l’histoire et la littérature basque du XIX. siècle*. Actes du Colloque International del’URA du CNRS (1993 Bayonne). Bordeaux III. Centre d’Etudes Linguistiques et Littéraires Baques.189-204.

PAGOLA ET AL. 1999. *Bonaparte, L.L., Prince. Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Ekialdeko behe-nafarrera-1*. Lan taldea, R. M. Pagola et al. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Réveil basque. 1886-1894.

Revue des Basses Pyrénées et des Landes. 1886.

Le Robet quotidien.1996.

Semaine de Bayonne.

La Tradition au Pays Basque. 1897.—1982. Elkar.

- URKIZU, P. 1997. *Anton Abbadiaren koplarien guduak. Bertso eta aire zenbaiten bilduma*. 1851-1897.
- XARRITTON, P. 1985. "Gratien Adéma Zalduby-ren bizia eta lanak". *Mundaiz* 29.
- 1990. "XIX. mendeko olerki-bertsogintza". *Gauontza* sorta, Labayru, Bilbo. 11-85.
- 1992. "J.B. Elissamburu eta Gratien Adema". *Eusker*a, 1992-1. 55-63.
- XARRITTON P.-OURET, J. P. 2003. "Euskaltzaindiaren barne-historia. Pierre Broussain-en gutundegia. Hirugarren gutun-azaoaren aurkezpena". 201-254. *Eusker*a, 2003,1. 201-254.
- XX. 1908. "Zaldubi zenari". *Eskualduna*, 1115, 1908/08/21.
- ZALBIDE, M. 2007. "Iparraldeko euskalgintza, XIX. mendearen bigarren erdian: Zaldubi eta bere garaia". *Eusker*a, 3. 877-1008.

LABURDURAK ETA OHARRAK

BnF: Bibliothèque national de France.
E: *Eskualduna*.
EO: *Eskualdun Ona*.
RB: *Réveil Basque* (1886-1894).
RIEV: *Revista Internacional de Estudios Vascos*.
RBPL: *Revue des Basses Pyrénées et des Landes*.
Neurtitzetan, erromatar zenbakien bidez adieraziko da zenbatgarren estrofa den.

ERANSKINAK

(1. eranskina):

Zaldubik Luis Etxeberriri gutuna (1888)

+

Tardets 15 Mars 1888

Bien cher et honoré Monsieur,

Seulement j'aurais dû avoir la politesse de vous dire qu'à tout moment

libre je travaillais pour vous. Ayez donc, vous aussi, conscience et pitié de mes lenteurs. Quelle tortue je suis! Hélas, que je vous envie à vous autres cette activité et cette promptitude que peut-être contribue à exciter en vous le mouvement ou le tourbillon de Paris.

Je ne vous parle pas d'un surcroît d'occupations que m'a occasionnée pendant deux mois une épidémie de fièvre typhoïde qui a frappé beaucoup de mes ouailles. Elle s'en est enfin allée, ne nous ayant dérobé qu'un pauvre malingre de 11 ans.

L'intérêt que vous me faites l'honneur de porter à mes compositions basques, a été cause que, pris d'un grand zèle et d'un redoublement d'amour propre en même temps que d'un légitime désir de vous être agréable je me suis mis à un grand travail.

Hier j'achevais la 80^a page de mes poésies basques profanes, retouchées et laborieusement relimées. Le temps que je mets à ruminer ces corrections, me permet de calligraphier tout ce que j'en transcris.

Il se fait que depuis trois ans j'en suis à la troisième édition de mon manuscrit. Peut-être mon épreuve actuelle sera livrée prochainement à l'impression.

J'ose vous envoyer 2 fascicules écrits l'an dernier, gardant devers moi ce que j'ai travaillé et ce que travaille encore en ce moment.

Pourtant, ce n'est pas très noble de ma part de ne vous faire don que d'un manuscrit qui me fait double emploi. J'ai pensé que vous en tireriez quelques pièces pour votre Eskualduna, et ensuite, avec le temps paraîtrait mon édition complète.

Ma composition la plus soignée, la plus sérieusement étudiée, est, sans contredit, Bettirisants. C'est la description de nos Francs maçon. J'y ai ajouté dans ma dernière épreuve, une strophe qui regarde notre enseignement laïque.

Cette pièce gagne énormément à être chantée. C'est le chant qui la rend absolument coulante et compréhensible dans toutes ses nuances. Je l'ai notée d'après d'excellents musiciens qui, il est vrai, ne trouvaient pas la besogne facile.

Mais qui saura chanter cela comme il faut? À moins que ce soient des vieillards qui autrefois avaient leur chanson de Bettirisans sur cet air et certains couplets sur ce rythme. Leur Bettirisans était la personnification comique, caustique et burlesque de la misère ou de la famine dans nos pays. Que ne donnerais-je pas aujourd'hui pour avoir écrit cette chanson que j'entendais dans mon enfance?

Mon Bettiri-Sants, est le même personnage ressuscité, sorti de terre, cosmopolite, ayant toutes les faveurs de l'humanité révolutionnaire et vicieuse, et devenue le potentat devant qui rampent tous les gens tarés. C'est Gambetta dans la façon dont le monde s'en est entiché. C'est le Juif, tel que nous le dépeint Drumont... C'est aussi notre république...

J'ai mis peut-être trop de fini, de finesse et correction dans cette composition pour qu'elle puisse devenir populaire.

C'est un enfant que j'ai caressé à outrance au fur et à mesure que je l'ai habillé pour le produire en public.

Cette chanson avait été primée par la commission de M. Antoine d'Abbadie, en 1875, je crois, et chose étrange, après la distribution des 500 exemplaires d'usage au public de la fête de Sare, tout disparut sur-le-champ, et le lendemain presque personne n'en tenait un seul exemplaire.

Il m'a été dit que c'est depuis lors que suis sous la surveillance d'une Loge francmaçonnique de Pau. Mais est-ce vrai, qu'il y ait même une Loge à Pau?

Mais quand m'occuperai-je de la prose que j'ai tant projeté de composer pour expliquer aux basques ce que c'est que la franc-maçonnerie?

Dès demain j'entre dans le fort de mon travail sacerdotal du temps pascal, je ferai donc trêve à toute autre application. Aussi, je me hâte de vous faire aujourd'hui même cet envoi.

Recevez, bien cher et honoré Monsieur, les hommages les plus affectueusement distingués de votre léal

Gr. Adéma ch. h.

curé doyen de Tardets.

Oharra: jatorrizkoaren kopia ikus daiteke 2. eranskinaren ondotik.

+

Cardets 15 Mars 1888.

Bien cher et honoré Monsieur,

Seulement j'aurais dû avoir la politesse de vous dire qu'à tout moment libre je travaillais pour vous. Voyez donc, vous aussi, conscience et pitié de mes lenteurs. Quelle tortue je suis ! Hélas, que je vous envoie à vous autres cette activité et cette promptitude que peut être contraindre à exciter en vous le mouvement du la tourbillon de Paris.

Je ne vous parle pas d'un surcroît d'occupations que m'a occasionnées pendant deux mois une épidémie de fièvre typhoïde qui a frappé beaucoup de mes orailles. Elle s'en est enfin allée, ne nous ^{emport} laissant qu'un pauvre malingre de 44 ans.

L'intérêt que vous me faites l'honneur de porter à mes compositions basques, a été cause que, pris d'un grand zèle et d'un redoublement d'amour propre en même temps que d'un légitime désir de vous être agréable je me suis mis à un grand travail.

Hier j'achevais la 80^e page de mes poésies basques profanes, retouchées et laborieusement relimées. Le temps que je mets à revirer ces corrections, me permet de calligraphier tout ce que j'en transcris.

Il se fait que depuis trois ans j'en suis à la troisième édition de mon manuscrit. Peut-être mon épreuve actuelle sera livrée prochainement à l'impression.

J'ose vous envoyer 2 fascicules écrits l'an dernier, gardant devers moi ce que j'ai travaillé et ce que travaille encore en ce moment.

Surtout, ce n'est pas très noble de ma part de ne vous faire don que d'un manuscrit qui me fait double emploi. J'ai pensé que vous en tireriez quelques pièces pour votre *Estkiatsumca*, et ensuite, avec le temps paraîtrait mon édition complète.

Ma composition la plus soignée, la plus sérieusement étudiée, est, sans contradiction, *Pettirisants*. C'est la description de nos Francs maçons. J'y ai ajouté dans ma dernière épreuve, une strophe qui regarde notre enseignement laïque.

Cette pièce gagne énormément à être chantée. C'est le chant qui la rend absolument coulante et compréhensible dans toutes ses nuances. Je l'ai notée d'après d'excellents musiciens qui, il est vrai, ne trouvaient pas la besogne facile.

Mais qui saura chanter cela comme il faut? à moins que ce soient des vieillards qui autrefois avaient leur chanson de *Pettirisants* sur cet air et certains couplets sur ce rythme. Leur *Pettirisants* était la personnification comique, caustique et burlesque de la misère ou de la famine dans nos pays. Que ne donnerais-je pas aujourd'hui pour avoir écrit cette chanson que j'entendais dans mon enfance?

Mon *Pettirisants*, est le même personnage ressuscité, sorti de terre, cosmopolite, ayant toute les faveurs de l'humanité révolutionnaire et vicieuse, et devenu le potentat ~~pariant~~ qui rampent tous les gens tarés. C'est Gambetta dans la façon dont le monde s'en est entiché. C'est le juif, tel que nous le dépeint Drumont... C'est aussi notre république...

J'ai mis peut-être trop de fini, de finesse et de correction, dans cette composition pour qu'elle puisse devenir populaire.

C'est un enfant que j'ai caressé à outrance au fur et à mesure que je l'ai habillé pour le produire en public.

Cette chanson avait été primée par la commission de M. Antoine d'Abbadie, en 1875, je crois; et chose étrange, après la distribution des 500 exemplaires d'usage au public de la fête de Sarre, tout disparut sur-le-champ, et le lendemain presque personne n'en tenait un seul exemplaire.

Il m'a été dit que c'est depuis lors que suis sous la surveillance d'une loge franc-maçonnique de Sarre. Mais est-ce vrai, qu'il y ait même une loge à Sarre?

Mais quand m'occuperais-je de la prose, que j'ai tant projeté de composer pour expliquer aux basques ce que c'est que la franc-maçonnerie?

Dès demain j'entre dans le fort de mon travail sacerdotal du temps pascal; je ferais donc mieux à toute autre application. Aussi, je me hâte de vous faire aujourd'hui même cet envoi.

Recevez bien cher et honoré Monsieur
les hommages les plus affectueusement distingués
de votre fidèle

L. Adéma ch. h.

(curé de Sarre)

(2. *eranskina*)

Zaldubik A. Dutey Harisperi gutuna (1901)

Confidentielle.

Depuis trois ou quatre jours, tous les basques bons catholiques, surtout les prêtres de l'entourage de Mgr. Jauffret, nous sommes dans les transes et la désolation...Il m'est impossible d'entrer dans tous les détails, vous-même, Monsieur et honoré compatriote, vous en seriez navré. Notre bon et bien sympathique M. Louis Etcheverry vous en a-t-il encore parlé? Car c'est lui qui est en cause, Mgr l'Evêque de Bayonne l'ayant malmené dans son Bulletin diocésain à propos d'une allusion de l'Escualduna où sa Grandeur s'est cru indiqué. Du coup, M. Etcheverry, ferait cesser la publication de l'Esqualduna; ce qui serait un grand malheur pour tout le pays Basque, particulièrement au point de vue religieux. Je suis de ceux qui jugent, que des démarches doivent être faites au plus tôt pour supplier M. Louis Etcheverry de nous conserver son excellent journal. Hier, j'ai été prié par des amis qui savent que je correspond avec vous, de demander votre intervention dans ce sens auprès de notre bien aimé offensé.

Veillez agréer, Monsieur, les hommages les plus patriotiquement basques, de votre très humble serviteur.

Gr. Adéma chanoin.

Albert Dutey Harispek Luis Etxeberriri

Le 18 Mai 01

Mon cher Louis.

Tu sais que je suis depuis quelque temps en correspondance avec le chanoine Adéma au sujet de la publication de ses oeuvres poétiques. Ce matin j'ai reçu de lui une lettre dont je détache le passage ci-joint.

J'estime comme nos amis du Pays basque, que la disparition de l'*Esqualduna* surtout en ce moment, serait déplorable.

Si ce n'est dans un but électoral, conserve, je t'en prie, ce bon petit journal pour aider à maintenir nos braves paysans dans leurs sentiments chrétiens.

Affectueusement à toi

A[lbert] Dutey Harispe

Oharra: Eskerrak bihurtu nahi dizkiogu E. Goihenetxeren alargunari, gutun hauek argitaratzen uzteagatik.